

# Agirretarrak :



barrenet 11. ikastunitatea

2. maila

**irakaslearena**

## AURKIBIDEA

1. Irakaslearentzako oharrak .....	3
2. Ikastunitatearen ibilbidea .....	4
3. Ikastunitatearen edukiak eta helburuak.....	6
<b>2. Atazak</b>	
<b>A Ataza:</b> Nolako egurra, halako ezpala?.....	7
<b>B Ataza:</b> Biltzen ginenekoa .....	11
<b>C Ataza:</b> Zorionean eta ezbeharrean.....	14
<b>C1 Ataza:</b> Familia .....	14
<b>C2 Ataza:</b> Haurrak urri .....	17
<b>D Ataza:</b> Zaharrak berri.....	19
<b>3. Eranskinak</b>	
1. Bideo-pasarteak.....	32
2. Irrati-pasarteak.....	35
<b>4. Material osagarriak</b>	
<b>A Ataza:</b> Nolako egurra, halako ezpala?	
1. Aitaren izenean.....	50
<b>B Ataza:</b> Biltzen ginenekoa	
2. Gerarta Aingeru eta beste .....	52

# 1. Sarrera

## 1. IRAKASLEARENTZAKO OHARRAK

### LAN NAGUSIA

Ikastunitate honetan familia izango dugu hizpide ia denbora guztian. Era berean, pertsonak beren bizitzan izaten dituzten atal edo aro ezberdinak jorratuko ditugu. Izan ere, txikitik ematen diren kontuetatik hasi eta zahartzaroan edo bizitzaren azken txanpan gertatzen diren kontuetara abiatuko gara hainbat gauza ikutuz. Ez da, beraz, familia soilak izango dugun esparru bakarra. Horrela, txikitako kontuak, gurasoekiko harremanak, ezkontza, seme-alabak, familiaren bilakaera, demografia eta zahartzaroa bilduko ditu ikastunitateak.

Ataza bakoitzak eskatzen dituen helburu eta betebeharez gainera, ikastunitate osoa bilduko duen lan nagusi bat gauzatu beharko dute ikasleek: pertsona baten biografia egin. Ataza bakoitzaren amaieran pertsona ezezagun horren argazki-albumetik aukeratutako hainbat argazki izango dituzte euskarri gisa. Argazkiok pertsona horren aro ezberdinak aurkezten dituzte. Ataza bakoitzaren amaieran jorratuko dituzten gaiekin eta argazki horiek erakusten dutenarekin egingo dute pertsona ezezagun horren biografia. Beraz, ez da ikastunitatearen bukaeran burutu beharreko lana, baizik eta ikastunitateak aurrera egin ahala egin beharrekoa. Horretarako, egoki deritzozun unean denbora librean eman beharko diezu.

Nolanahi ere, ez dugu idazteko ariketa soiltzat har dezaten nahi. Idatziko duten biografia horma-irudi batean gauzatu dute guztion ikusgarri izan dadin: hau da, ikasgelan egiten den guztia irakurgai izango dute ikasleek ikastunitatean zehar. Pasarteak idazteaz gainera, bestelako kontuez (marrakiek, gauzez...) apain dezakete biografia. Adibide gisa, Nizan jaiotako Arman margolariak Vincent Van Goghen omenez eginiko eskultura edo collagea ipini diegu lehendabiziko atazaren bukaeran.


Talde txikitik egingo dute lana eta euren esku geldituko da pertsona ezezagun horri izena jartzea, ogibidea, pasadizoak eta abarreko kontuak asmatzea.

### HIZTEGIA

Ezezaguna edo gutxiago erabiltzen den familiaren inguruko hiztegia ezagutzeko parada izango dute.

## 2. IKASTUNITATEAREN IBILBIDEA

OSAGARRIAK



**C ATAZA: ZORIONEAN ETA EZBEHARREAN**

**C1 ATAZA: FAMILIA**

- Galderak mintzagai
- Bideoan agertzen den istorioa asmatu eta berreraiki
- Mahaingurua antolatu  
(14. or. irak. lib) (29.or. ik. lib)

**IRAK/MINTZ/IDAZ/ENTZ**

**C2 ATAZA: HAURRAK URRI**

- Demografiaz jardun
- Etorkizuneko familiaren erretratu robota egin
- Jaiotza tasa dela eta faktoreak zerrendatu, sailkatu
- Iritzi artikulua baten gainean jardun  
(17. or. irak. lib) (37. or. ik. lib)

**IRAK/MINTZ/IDAZ**



**D ATAZA: ZAHARRAK BERRI**

- Gertaerak zerrendatu
- Ipuinaren korapiloa asmatu eta idatzi
- Asmo baten onurak zerrendatu, garrantzitsuenak azpimarratu
- Adineko pertsonentzako produktu bat asmatu eta aurkeztu  
(19. or. irak. lib) (46. or. ik. lib)

**ENTZ/MINTZ/IDAZ/IRAK**

### 3. IKASTUNITATEAREN EDUKIAK ETA HELBURUAK

#### LEXIKOA

- **A ataza:** norbaiten antza / tankera izan, zango okertuak, ile txima-jarioa, ile guria, elkarren gogoia ukan, memeloa, belaunaldia, norbaitekin zorra kitatu...
- **B ataza:** jitea, erru sentimendua, moldakorra, erdiko semea, lehiakorra, zelatia, hazi, olgeta, (e)n arteko loturak, ahizpa, aitagarreba, aita-ama pontekoak, aitapontekoa, aitaita, alabatzakoa, amagarreba, amapontekoa, amama, berraitona, birramona, besoetakoa, biki / hiruki / laukiak..., biloba, erraina, herenaitona, herenamona, izekoa, koinata, koinatua, lehengusua, neba-arrebak, semetzakoa, senitartekoak, suhia, ugazaita, ugazalaba, ugazama, ugazeme, liskarra, harreman emankorra, norbaitengana jo, eragozpena, baztertzaila, ongizatea, ohikeria, arerioa, erresumina...
- **C1 ataza:** bikotea, leinua, arbasoak, ondorengoak, guraso bakarrekoa, senar-emazte egin, senar-emaztetzat hartu, ezkontidea...
- **C2 ataza:** amatasuna, ugalkortasuna, munduratu, ernaltze-aldia, haurdunaldi anitza, jaiotza-tasa...
- **D ataza:** zahartzaroa, adinekoa, nagusia, zaharren egoitza, zahar-etxea, erosteko ahalmena, gizarte-balorea, zaharkitu, erretiroa, gorazarrea, azkenetan egon...

#### MINTZAGAIAK

- Gurasoekiko harremanak (A)
- Familiaren arteko ospakizunak (B)
- Senideen arteko arazoak (B)
- Familiaren bilakaera (C1)
- Bakarrik bizi (C1)
- Jaiotza-tasa (C2)
- Zaharrak / zahartzaroa (D)
- Helduak boluntario (D)
- Helduak eta publizitatea (C2)

#### ELKARRERAGINA

- Deskripzioak egiteko erabili dituzten adjektiboak nahiz formula ezberdinak elkarri trukitzea (A)
- Bideo mutuari taldeka gidoia asmatzea (A)
- Biografia idazteko irizpideak erabakitzea (A)
- Neba-arreben rolez gogoeta egitea (B)
- Senideen arteko arazoak sailkatzea (B)
- Familiari buruzko galderak taldeka erantzutea (C1)
- Etorkizuneko familiaren erretratu robota egitea (C2)
- Adineko pertsonentzat produktu bat asmatzea (D)
- Ipuinaren amaiera asmatzea (C2)

#### KOMUNIKAZIORAKO AZPITREBETASUNAK

- Zenbait artikuluri azpтитuluak idaztea (A)
- Bideo mutuari gidoia asmatzea (A)
- Bideo batetik informazio baliagarria hartzea (A)
- Testu batetik garrantzizko informazioa bilatzea (C2)

#### GRAMATIKA ETA DISKURTSOA

- 

#### EUSKAL KULTURA ETA GIZARTEA

- Familia Euskal Herrian (C1)
- Jaiotza-tasa Euskadin (C2)

## 2. Atazak

### A ATAZA: NOLAKO EGURRA, HALAKO EZPALA?

240'

#### Helburu nagusia:

- Pertsonaia famatu baten zenbait datu emanda, testu biografiko motza talde txikitan idaztea eta, berau aitzakiatzat hartuta, ikastunitatearen amaieran egin beharreko lan nagusia azaltzea.

#### Helburuak:

- Adibideari jarraituz, aukeran ematen zaizkien pertsonaien deskribapen fisiko nahiz psikikoa labur idaztea talde txikitan.
- Bideo mutua ikusita, eurek istorio bat asmatzea taldeka.
- Datu batzuk ordenatu ostean, pertsonaia baten biografia motza taldeka idaztea.

#### Zertan den:

- Lehenbiziko multzo honetan senitartekoekiko (guraso nahiz aitona-amonekiko) antzekotasunak eta harremanak izango ditugu hizpide. Bi aspektu horiek jorratzeko hainbat ekintza burutuko dituzte. Era berean, multzo honen bukaeran gauzatuko duten ekintzak bide emango digu ikastunitatearen bukaeran taldeka aurkeztu behar duten lan nagusia azaltzeko.

#### PROZEDURA:

### 1

#### Atazaurrea: girotu

- Ikasleek ekarritako euren senideen argazkiak jasoko dituzu eta, nahastu ostean, gelako paretetan itsatsiko. Ondoren, ikasleak gelara sartuko dira eta argazkietan agertzen diren pertsonak euren ikaskideekin erlazionatuko dituzte daukaten elkarrekiko antzagatik. **(5')**  
**!Oharra:** Ikasle bakoitzak nahi adina argazki ekar ditzake.
- Irakasleak argazki bat seinalatu orduko, ikasleek euren iritzia emango dute. **(5')**
- Ikasle bakoitzak bere senideak nor diren erakutsi eta gero, ikasle batzuek euren burua deskribatuko dute labur; guraso edota beste senitartekorengandik jaso duten ezaugarriren bat aipatuz. **(10')**

#### Ataza: deskripzio eredia kontuan hartuz, beste batzuk gauzatu

- *Eskua bete izar*<sup>1</sup> liburuaren pasartetxea irakurriko dute bakarka. Testuak okin, harakin sarrailegin, auto-mekanikari eta, azkenik, aberatsen seme-alaben deskripzio laburra ematen digu, horien lanbidearekin nolabaiteko harremana eginez. Testua, irakurri ostean, galderei erantzungo diete bakarka eta denon artean komentatuko dute. **(10')**
- Testuan bezala ikasleek beste bi edo hiru langile aukeratuko dituzte eta horien seme-alaben deskripzioa egingo dute hiruko taldetan, liburuko taulan idatziz. Idatzitako deskripzioak irakurriko dizkiote elkarri deskripzioa nori dagokion aipatu gabe, hau da, besteek asmatzeko. **(15')**

#### Feedbacka

- Talde ezberdinetako ikasleak elkartuko dira eta elkarri trukatuko dizkiote deskripzio horiek ea asmatzen duten noren seme-alabak diren. **(10')**

<sup>1</sup> Schami, Rafik. *Eskua bete izar*. *Elkar* 13-14 orr.

## 2

### Atazaurrea: artikuluei azpitoluak idatzi

- Gurasoekiko harremanak direla eta, lau pertsona ospetsuri egindako elkarrizketak irakurgai<sup>2</sup> izango dituzte ikasleek. Bakarka irakurri ostean, hiruak jarriko dituzu eta artikuluei alde aurretik kendu dizkiegun azpitoluak asmatzeari eta idatzeari ekingo diote. (10')
- Talde bakoitzak egindakoa arbelean idatziko du (arbela lau zatitan banatu, azpitolu adina zati, alegia). Gero, talde osoaren iritzia kontuan hartuta, azpitolu egokienak aukeratuko dituzte (pertsonaia bakoitzeko azpitolu bana). Labur bada ere, zein izan diren aukeratzeko irizpideak edo arrazoiak esango dituzte. (10')

#### Zuzenketa-orrria

Xabier Amuriza: "Alabak agintzen du eta beti gaude jolas giroan"  
Hasier Etxeberria: "Aitei ikusitako gauza txarrak uxatuko ditut"  
Benito Lertxundi: "Umeak intuitu egiten du aita autoritatea dela"  
Juanito Oñartzabal: "Mikelek 14 urtera arte mendian ibili beharko du"

- Testuei erreparatu, mintzamenerako galderei bakarka erantzunoko diete eta denon aurrean azalduko dituzte. (10')

### Ataza: bideo mutua ikusi ostean, gidoia taldeka idatzi eta antzeztu

- Segidan jarriko diezun bideo<sup>3</sup> mutuak (1. bideo-pasarte) gurasoen eta euren semearen arteko liskarra erakusten du. Ikasleek berek asmatu beharko dute hor suertatzen den elkarrizketa. Bitan-edo arretaz ikusi ondoren, hiruak elkartuko dira eta bideoetik atera ditugun fotogramen parean elkarrizketa idatziko dute. (15')

### Azalpena

- Antzeztuz emango dute egindako elkarrizketaren berri. (10')

### Feedbacka

- Antzezpena bukatu orduko, ikastaldea balorazioa egingo du. Baloratzeko irizpideak euren esku utziko dituzu: ikasle bakoitzak nahi duen aspektuari erreparatuko dio. (10')

### Atazaostea

- Jarri bitan bideoa soinuarekin (2. bideo-pasarte) eta galdetu ikasleei ea ezagutzen duten antzekorik. Horrela bada, kontatzeko eskatuko diezu. (10')

## 3

### Atazaurrea: biografiaren eskema osatzen hasi

- Ikaslearen liburuan familia baten argazkiak daude: gurasoak eta sei seme-alaba. Ikusi ondoren, zein pertsonari buruz hitz egingo dugun asmatu behar dute. Jarraian, proposatzen zaizkien galderak erantzuten saiatuko dira talde txikitan. Pertsonaia zein den jakin ezean, pistaren bat edo beste eman. (10')

<sup>2</sup> Aita xalo eta malgu hori. Ikusmira, *Zabalik*. 2000ko martxo. 18-19 orr.

<sup>3</sup> El Tricicle. *Dinamita* (guraso pasotak). ETB



### Zuzenketa-orra

Van Gogh familiaren izenak: Anna, Theo, Elizabeth, Cornelius, **Vincent**,  
Wilhelmien, Anna Carpentus (ama), Theodorus Van Gogh (aita),

- Apur batean komentatu ostean, ematen zaizkien datak eta argazkiak testuekin parekatu beharko dituzte. **(15')**

### Zuzenketa-orra

1853	Groot Zundert-en, ipar-Brabant-en, jaio zen.
1869	Arte-merkatari prestakuntza jaso zuen Hagan 18 urte zituela.
1876	Familiak zuen arte-salerosketa negoziotik bota ondoren, Londresa abiatu zen irakasle laguntzaile gisa lan egitera.
1878	Belgikako Borinage-ra, mehatzarien eskualdera, joan zen predikatzerara baina, bere jardunean porrot egin zuen.
1882	Hagan Clasina María Hoornik, "Sien" goitizenez ere ezaguna zen prostituta ohia, ezagutu eta etxe bat alokatu zuten elkarrekin bizitzeko. Hurrengo urtean banandu ziren.
1885	Aita hil zitzaion apoplexiak jota. Anberesen arte-ikasketak hasi zituen berriro baina, urtebete baino ez zuen horretan eman irakasteko moduarekin ados ez baitzegoen.
1886	Parisa joan zen Theo bere anaiarekin bizitzera. Bertan Cormon-en estudioan jaso zituen arte-ikasketak beste pintore ospetsu batzuekin batera.
1888	Arlés-era joan zen "argiaren" bila. Han "Etxe Horia" alokatu zuen.
1888	Gauguin pintorea Vincentekin biltzera joan zen Arlés-era.
1888	Gauguinen eta Vincenten arteko liskarrak gero eta larriagoak ziren.
1888	Gauguinekin izandako istilu larri baten ostean, belarri-gingila moztu zuen.
1889	Berak hala nahita, Saint-Rémyko eroetxera eraman zezaten eskatu zuen.
1890	Saint-Rémy utzi eta Gachet osagilearekin bildu zen horren etxean Auvers-sur-Oisen.
1890	Bere buruari errebolber tiroa bota zion bihotzean. Bi egun geroago hil zen Theo alboan zuela.

### Ataza: bideoa ikusi eta biografia osatu

- Biografia osatzeko Orsay-ko museoa<sup>4</sup> saioko bideo bat **(3. bideo-pasarte)** ikusiko dute. Bideoak Vincent-en berri ematen du 1886tik aurrera zendu arte. Bideoa ikusi ahala, datu deigarriak edo berriak idatziko dituzte: nor berea egingo du. **(15')**
- Elkarri komentatuko diote bakoitzak jaso duena. Arestian parekatutako gertaerekin eta bideo horretatik ateratako datuekin biografia laburra idazten hasiko dira taldeka. Esaiezu ez dutela jasotako guztia zertan idatzi. **(20')**

### Feedbacka

- Idatzitakoa beste talde batekin trukatzeko esango diezu. Beste taldearen lana irakurri ostean, liburuxkan duten Van Gogh-en biografiarekin<sup>5</sup> alderatuko dute. Idazlan horren azterketa egingo dute bi biografien ezberdintasunetan oinarrituz: estiloaren nolakotasunari, formari, hizkuntzari eta datuen bilketari erreparatuko diote. **(15')**  
**Oharra:** Kontuan hartu aukeratu dugun biografia edozein entziklopediatan aurki dezakegun motakoa dela; beraz, ezberdintasun nabarmenak egongo dira, eurek egindakoarekin alderatuz gero.
- Talde bakoitzeko ikasle batek tokatu zaien biografia ozen irakurtzearen ardura hartuko du. Gero, talde bereko beste ikasle batek biografia horri egin dioten azterketaren berri emango du guztion aurrean. Ikastaldeak entzundako azterketarekin ados dagoen edo ez azalduko du. **(20')**

<sup>4</sup> Orsay-ko museoa bostgarren zatia. *Inpresionismoaren ondoren*. TECHNISONOR, ETB

<sup>5</sup> Van Gogh, Vincent Willem. *Lur Hiztegi Entziklopedikoa* 289-290 orr.

### Atazaostea

- Honen guztiaren ondoren, ikastunitatearen bukaeran taldeka gauzatu beharko duten lana gogora ekarriko diezu: ataza guztien amaieran argazkietan agertzen den pertsonaren biografia egin behar dutela, alegia. Biografia guztiz informala behar du izan. Horma-irudi batean itsatsiko dituzte pertsonaia horren bizitzaren pasadizoak. Era berean, pertsonaiaekin zerikusia duten gauzak ere jar ditzakete. **(5')**
- Ondoren, ikastunitatean zehar lagun izango dugun pertsonaiaren lehenbiziko argazkiak aztertuko dituzte. Argazkiok ematen dieten informazioarekin eta lehenbiziko ataza honetan jorratu ditugun gaiekin hasiko dira lanean. **(5')**  
**!Oharra:** Ataza bakoitzaren amaieran edo zuk egoki deritzozun unean (eskolaren azken minutuetan-edo) denbora eman beharko diezu lan hori burutzeko.
- Adibide gisa, Arman margolari frantsesak Vincent Van Gogh-Arles Fundazioari eman zion eskulturaren argazkiari erreparatuko diote. Ez diegu halakorik egiteko eskatuko, baina ideia batzuk jaso ahal dituzte. **(5')**



#### IRAK. LIB. 4.1.

Guraso eta seme-alaben arteko harremanen inguruan gehiago jardun nahi izanez gero, *Aitarek izenean* delako ataza duzu material osagarrian. Van Goghek aitaren omenez margotu zuen koadro batek bide emango du horretarako.

### Helburu nagusia:

- Familia arteko harremanak hautsi, zaildu edota moteldu ditzaketen arazoez jardun ostean, arazo horiek beren larritasunaren arabera sailkatzea eta eztabaidara jotzea.

### Helburuak:

- Datu batzuk dituztela, hipotesiak egitea eta eztabaidatzea.
- Ezezaguna den familia hiztegia lantzea eta ikastea.
- Senideen arteko arazoez jardutea, sailkatzea eta irtenbideen gainean aritzea.

### Zertan den:

- Ataza honetan neba-arreben arteko gogoeta batzuk izango dituzte hizpide, hala nola, familia barruan ematen diren rolak, ospakizunak, harremanak... Familia barruko rolen kontura, beren hipotesiak bota eta defendatuko dituzte, talde naturalak sortuz. Talde horiek, iritzi bereko ikasleek osatuko dituzte eta, behin elkartuta, eztabaidara joko dute. Era berean, ezezaguna suertatuko den familia hiztegia landuko dute egoera batzuk asmatuz. Amaitzeko, senideen arteko harremanez, arazoez eta horiek konpontzeko ematen diren aholku zein irtenbideez jardungo dute.

## PROZEDURA:

### 1

#### Atazaurrea: girotu

- Aztien antzera matematika joko bat erabiliz, ikasleak zenbat neba-arreba diren eta bakoitza zenbatgarrena den asmatuko duzu. Jokoa zertan datzan **4. bideo-pasartea**<sup>6</sup> ikusiz lortuko duzu. Ikasleak aho zabalik utzi ondoren, bideoa ipiniko diezu jokoaren azalpena ikus dezaten. **(10')**

#### Ataza: deskripzioak lotu hipotesiak eginez

- Zientzialari batek egindako ikerketa baten emaitzak izango dituzte hizpide. Ikerketan neba-arreba bakoitzaren profila zehazten du: lehendabiziko seme-alabarena, bigarrenarena, erdikoarena eta azkenarena. Deskripzio horiek taula batean ipini ditugu nahasturik, eta ikasleen eginkizuna ordenatzea da. **(5')**

#### Prestaketa

- Lan hori bakarka egin ondoren, iritzi bereko ikaskideak elkarrekin bilduko dira talde naturalak eratzeko eta argudioak elkarrekin prestatzeko. **(5')**

#### Azalpena

- Eztabaidara joko dute talde bakoitzak berea defendatuz. **(10')**  
**!Oharra:** Zientzialariak eginiko deskripzioez gain, ikasleek beste batzuk gehi ditzakete, nahi izanez gero.

#### Feedbacka

- Ikaskideek elkarri baloratuko dizkiote esandakoak. Gerta daiteke hasieran bakoitza bere taldekideekin ados egotea, baina besteen argudioak entzun ostean horiexek gehiago gustatzea. **(5')**

<sup>6</sup> Jesus M<sup>a</sup> Goñi. *Bertatik Bertara*. ETB

## Atazaostea

- Aitatutako zientzialariak benetan zer ondorio atera zituen jakin-minez egongo direnez gero, Euskadi Irratiko *Munduan zehar*<sup>7</sup> saioko pasarte bat **(1. irрати-pasarte)** ipiniko diezu. Entzun ondoren, esaten duenarekin ados dauden edo ez azalduko dute. **(10')**
- Amaitzeko, txapelketatxo bat burutuko dute taldeka: "Zertan da garrantzitsua lehena eta azkena izatea?" **(5')**

## 2

### Atazaurrea: bideoa ikusi eta galderen inguruan jardun

- Familiaren arteko ospakizunak girotuko duen bideo<sup>8</sup> bat jarriko diezu **(5. bideo-pasarte)**. Esan ikasleei zeren ingurukoa izango den eta arretaz entzuteko. Bideoa bi zatitan banaturik dago: lehendabiziko zatia ikusi ondoren, talde txikitan erantzungo diete liburuko galderei; bigarren zatiaren ostean, berriz, mintzamenerako galderak komentatuko ditugu denon artean. **(15')**

### Ataza: egoerak asmatu eta familia hiztegia landu

- Talde txikitan jarriko dituzu ikasleak. Talde bakoitzak fikziozko familia bateko senitarteko gehien bilduko dituen egoera edo ospakizunen bat asmatu beharko du eta, horretaz gain, familiako zein partaide egongo edo joango diren ere azalduko dute. Horretarako, euren liburuxkan familiarekin lotutako hiztegia daukate alfabeto-ordenaren arabera jarrita. Bestalde, fikziozko familia horren istorio laburra egingo dute, gutxieneko koherentzia mantentzearen (alferrik sar litezke heren-aiton-amonak herenilobak heldu samarrak baldin badira). Nolanahi ere, hori, geroxeago baloratuko dute gainontzeko ikaskideek. **(20')**  
**!Oharra:** Familiaren inguruko hiztegia dela-eta zenbait hitz ezezagun suertatuko zaienez gero, utzi aldean hiztegi batzuk kontsultarako.

### Feedbacka

- Talde bakoitzak berea azaldu ostean, istorioak baloratzeari ekingo diogu denon artean markatutako irizpideen arabera. **(10')**



### IRAK. LIB. 4.2

Izenen kontura jardun nahi izanez gero, *Gerarta Aingeru eta beste ataza* duzu material osagarrian.

## 3

### Atazaurrea: girotu

- Senitartekoak biltzeko arrazoiez jardun ostean, kontrako norabidea hartuko dugu orain: familiaren arteko arazoez edo elkarrengandik urruntzen dituzten kontuez arituko dira ikasleak. Talde txikitan, familiaren arteko harremanak kaskartu, moteldu edota hautsi egiten dituzten arrazoi-zerrenda egingo dute. Talde bakoitzak egindakoak arbelean idatziko dituzu, geroxeago erabiltzeko. **(5')**

### Ataza: ideia eztabaidagarriak azpimarratu eta arazoak sailkatu

<sup>7</sup> Xabier Mendiguren. *Munduan zehar*. Euskadi Irratia.

<sup>8</sup> Bixente Suhiltzailea. *Sorginen Laratza*. ETB.

- *Consumer*<sup>9</sup> aldizkariko artikulua bat irakurriko dute bakarka. Irakurri ahala, eztabaidagarriak iruditzen zaizkien ideiak azpimarratuko dituzte. **(15')**  
**Oharra:** Testuaren lehenbiziko paragrafoan, senitartekoen arteko harremanak kaskartzen dituzten zenbait kasu aipatzen dira (herentziak, diru-kontuak...). Gehitu horiek arbelean daudenei, ikasleek azpimarratu ez badituzte.
- Taldeka, arazo horiek sailkatuko dituzte bakoitzak daukan larritasunaren arabera. **(10')**
- Amaitzeko, zerrenda bakarria egingo dute guztion artean. **(5')**

#### **Atazaostea**

- Artikuluaren egileak bukaeran senideen arteko harremanak sendotzeko ematen dituen aholku batzuk irakurriko dituzte bakarka. Ondoren, bakoitzak bere iritzia botako du ikastaldearen aurrean. **(10')**
- Gure pertsonaia ezkutua beste argazki ale batzuk ikusiko dituzte. Komentatu apur batean argazki bakoitza eta talde bakoitzak ekin diezaiola lanari.

---

<sup>9</sup> Anai-arreben arteko harremanak. *Consumer*. 1999ko urtarrila

**C1 ATAZA: FAMILIA****Helburu nagusia:**

- Irratsaio batetik ateratako zenbait iritziekin eztabaida egitea.

**Helburuak:**

- Zenbait galderaren inguruan iritzia ematea.
- Bideoz ikusiko duten fikziozko egoera baten trikimailuak asmatu eta istorioa berreraikitzea.
- Bakarrik edo lagunekin bizitzearen inguruko eztabaida egitea.

**Zertan den:**

- Ataza honetan familiaren inguruko hausnarketa batzuk izango ditugu hizpide: gizartean duen papera, definizioa, bilakaera, motak, ezkontza eta bizitzeko bestelako aukerak; hau guztia zenbait ekintza laburrez lagundurik. Ondoren, bakarrik, familiarekin edo beste norbaitekin bizitzeko aukeren ganean eztabaidatuko dute.

**PROZEDURA:****1****Atazaurrea: girotu eta testuaren ganean jardun**

- Ideia-jasaren teknika erabiliz abiatuko gara. Ikasle bakoitzak "familia" hitzak iradokitzen diona esango du hitz bakar bat erabiliz. Bakoitzak nahi duenean eta nahi dituen hitzak bota ditzake. Hitzak esan ahala, zuk arbelean idatziko dituzu. **(5')**
- Arbela bete ostean, hitz bat aukeratuko duzu eta esan duen ikasleari eskatuko diozu arrazoitzeko. Horrela egingo duzu banaka batzuekin, guztiei galdetzea luzeegia gerta litekeelako. **(10')**
- Aldizkari bateko editoriala<sup>10</sup> irakurriko dute bakarka. Ondoren, talde txikitari jarrita, artikulu horrek pentsarazi diona esango diote elkarri. Azkenik, denon artean komentatuko ditugu gogoeta horiek. **(10')**

**Ataza: taldeka galderei erantzun**

- Ikasleen liburuxkan galdera batzuk dituzte hiru ataletan banatuta. Ikasleak hiru taldetan banatu ondoren, eman talde bakoitzari atal bat eta saia daitezela atal horretako hiru galderei erantzuten, eurek dakitena edo pentsatzen dutena idatziz. **(15')**

**Azalpena**

- Lehen ataleko galderak dituen taldea hasiko da egindakoa azaltzen; gero, beste biak. Nolanahi ere, edozein ikaslek parte har dezake nahi duenean, zer edo zer gaineratu nahi izanez gero talde jakin baten iritzia entzutean. **(20')**

**Feedbacka**

- Esan ikasleei Miren Ariñok<sup>11</sup> galdera horiei erantzundakoa irakurtzeko eta eurek botatako iritziekin alderatzeko. **(15')**

<sup>10</sup> Familia lehen eta orain (Editoriala). *Unescoren Albistaria* 56: 9. or.

<sup>11</sup> Ariño, Miren. Familia tradizionalak pisu asko du oraindik. *Zabalik* 2000ko martxoa.

## 2

### Atazaurrea

- Esan ikasleei beren liburuxkako galdera orokorrak erabiliko ditugula gidoi gisa, ezkontzari buruz hitz egiteko. Ez da beharrezkoa galdera guztiei erreparatzea. **(10')**
- Kalean egindako galdera batzuen gainean jardungo dute: talde txikitan, herriko jendeak erantzun duena aurreratu saiatuko dira. **(10')**
- Guztion iritziak eta erantzunak aditu ondoren, **6. bideo-pasarte**<sup>12</sup> jarriko diezu kalean esandakoak entzun ditzaten. **(10')**

### Ataza: istorioa asmatu

- **7. bideo-pasarte**<sup>13</sup> ikusiko dute soinurik gabe (bolumena zerorrek jaitsi beharko duzu) eta fikziozko ezkontza horretan zer gertatzen den eta zein diren pertsonaien arteko harremanak asmatzen ahaleginduko dira ikasleak. **(5')**
- Bideoa soinu eta guzti beste behin jarriko diezu, pertsonaien arteko harremanei errepara diezaioten. Talde txikitan, liburuxkan dauden pertsonaiak erlaxionatuko dituzte dauzkaten harremanen arabera. **(10')**

### Feedbacka

- Hirugarrenez jarriko diezu bideoa, egin dutena zuzendu dezaten. **(5')**

### Atazaostea

Ezkontzaren kontu hau amaitzeko, bideo motz bat ikusiko dute, aurrekoaren jarraipena izan daitekeena. Oraingoan, apaizak senar-emaztegaiak ezkondu egin behar ditu, baina ia denbora guztian ahaztu egiten zaizkio esan beharrekoak eta senargaiak lagundu behar izaten dio apaizari. Bideoa 4 zatitan banatu dugu: apaizari esan beharrekoa ahaztu egiten zaionean izaten dira etenak.

- Txapelketa modura planteatuko diezu: eten bakoitzaren ostean, bideoa **(8. bideo-pasarte**<sup>14</sup>) gelditu eta ikasleek apaizak gogoratzen ez duena esango dute. Aukera guztiak arbelean idatziko dituzu bideoan esaten dutenarekin alderatzeko. **(10')**

## 3

### Atazaurrea

Bideo mutu batek pertsona baten ezkontza irudikatzen du. Ezkontza berezia da; izan ere, bere buruarekin ezkontzen ari da. Horixe da, hain zuzen, aurkeztu nahi duguna: bakarrik bizitzeko aukera.

- Bideoa **(9. bideo-pasarte**<sup>15</sup>) jarri ostean, zer irudikatzen duen galdetuko diezu. **(5')**
- Proposatzen zaizkien galderen inguruan jardungo dute denon artean. **(10')**

### Ataza: gaian oinarriturik eztabaidan aritu

- Bakarrik bizitzeari buruzko irratsaio<sup>16</sup> bat ipiniko diezu **(2. irrati-pasarte)**. Entzun ostean, apur batean komentatuko dugu. **(10')**
  - Irratsaiotik pasarte interesgarrienak edo esanguratsuenak atera ditugu, ikasleek euren liburuan ikusgai dituztenak. Horiexei helduko diegu eztabaidatzen hasteko. **(20')**
- Oharra:** Izendatu idazkari pare bat eztabaidak dirauen bitartean garrantzitsuena jasotzeko. Era horretan, eztabaidaren laburpentxoia egin ahal izango dute

---

<sup>12</sup> Ezkontzaren inguruan kalean. *Galdestreet*. ETB

<sup>13</sup> Ezkontza aldrebesa. *El Tricicle*. Dinamita. ETB

<sup>14</sup> Apaiz ganorabakoa. *El Tricicle*. Dinamita. ETB

<sup>15</sup> Bakarreko ezkontza. *El Tricicle*. Dinamita. ETB

<sup>16</sup> Bakarrik bizi. *Lauretan Babel*. Euskadi Irratia

### **Atazaostea**

- Atazaurrean ikusi duten bideo mutua ekarriko diezu gogora. Oraingoan, soinua eta guzti ikusiko dute **10. bideo-pasarte**a; baina, hori egin aurretik, eurek bideoaren testua osatzeko eskatuko diezu. Apaizak nolako formulak erabiliko dituen bere buruarekin ezkondu nahi duen pertsona bat ezkontzeko? **(10')**
- Atazaren bukaeran gaudenez gero, gure pertsonaia ezkutuaren hurrengo argazkiak aztertuko dituzte eta biografia horren inguruko istorioak zehazten jarraituko dute.



### Helburu nagusia:

- Iritzi artikulu batzuetan oinarriturik, ugalkortasun tasa baxua eragiten dituzten faktoreak zerrendatu, sailkatu eta irtenbideak bilatzea.

### Helburuak:

- Jasotako informazioarekin etorkizuneko familiaren erretratu-robotatalka egitea.
- Iritzi artikulu baten gainean gogoeta egitea.
- Iritzi artikulu batzuetatik beharrezko informazioa bilatzea.
- Informazio hori zerrendatu eta sailkatzea.

### Zertan den:

- Atal honetan demografiaz jardungo dugu gehien batean. Bideo batez girotuko dugu eta hortik aurrera horren inguruko informazioa jasoko dute. Ordura arte jasotako informazioaz eta hitz egin denaz etorkizuneko familia edo familia mota ezberdinak nolakoak izango diren zehaztuko dute talde txikitan. Ondoren, iritzi artikulu batzuetatik ateratako informazioarekin sailkapen bat egingo dute.

## PROZEDURA:

### 1

#### Atazaurrea: erreportaia ikusi

- Bideo<sup>17</sup> mutu baten bidez (**11. bideo-pasarte**) emango diogu hasiera "demografia" gaiari. Irudiak ikusita, galdetu zein berri edo gai ematen ari diren. Komeni da bideoa bi aldiz gutxienez ikustea (bi minutuko iraupena du soilik). **(10')**
- Guztion iritziak entzun ondoren, bideoa soinuarekin jarriko diezu (**12. bideo-pasarte**). Ondoren, euren liburuan dauzkaten galderekin jardungo dugu guztion artean. **(10')**

#### Ataza: informazioa jaso etorkizuneko familiaz jardun

- Belaunaldien ordezkapenari buruzko egunkari bateko artikulu<sup>18</sup> bat irakurriko dute bakarka. **(5')**
- Talde txikitan elkartu eta proposatzen zaizkien galderari erantzuten saiatuko dira. **(10')**
- Taldetan daudela, orain arte jasotako informazioarekin zein hitz egindakoarekin etorkizuneko familiaren edo familia-mota ezberdinen erretratu-robotatalka egiteko eskatuko diezu. **(10')**

#### Azalpena

- Talde bakoitzak egindakoaren aurkezpena egingo du. **(10')**

#### Feedbacka

- Talde guztien aurkezpen eta aukerekin familia bakarra osatzen saiatuko dira, hau da, talde bakoitzaren ekarpen interesgarrienak aukeratuz. **(15')**

<sup>17</sup> Non jaio. *Bertatik Bertara*. ETB

<sup>18</sup> Belaunaldien ordezkapena ez dago ziurtatua. Ikusmira (Erredakzioa), Zabalik 2000ko martxoan

## 2

### Atazaurrea

- Hainbat pertsonak jaiotza-tasaren inguruan erantzun dutena izango dute ikasleek irakurgai. Bost testu daudenez gero, bost talde egingo dituzu eta talde bakoitzak egokitu diozun testua irakurriko du. **(10')**

### Ataza: eskatutako informazioa atera eta sailkatu

- Talde bakoitzak ondoko informazioa aterako du laburtuta: Euskal Herriko jaiotza-tasa baxua dela-eta erantzun dutena eta horri aurre egiteko proposatzen dutena. **(5')**
- Egin dutena aurkeztu eta arbelean idatziko dute. **(10')**  
**!Oharra:** Banatu arbela bi zutabetan: lehenengo zutabearen jaiotza-tasa baxuaren zergatiak idazteko eta bigarrena proposatzen dituzten irtenbideak jartzeko.
- Hori guztia arbelean dagoela hasiko dira guztien artean arrazoiak eta konponbideak sailkatzen; garrantzitsuenetik ez hain garrantzitsuenera, guztiak garrantzitsuak liratekeen arren. **(30')**

### Feedbacka

- Egindako eztabaidaren gogoeta egingo dute: adostasuna lortzeko zailtasunik izan ote den, eman diren argudioen balorazioa eta abar. **(5')**

### Atazaostea

- Kazetari batek jaiotza-tasaren gainean idatzitako artikulua<sup>19</sup> irakurri eta jarrera horri buruz jardungo dute apur batean. **(15')**
- Aztertu gure pertsonaia ezkutuaren hurrengo argazkiak.

---

<sup>19</sup> Urkiza, Ana. Sei milioi salatari. Euskaldunon Egunkaria. 2000/11/02

### Helburu nagusia:

- Adineko jendearentzako produktu bat taldeka asmatu eta horren aurkezpena egitea.

### Helburuak:

- Bakoitzaren bizitzan zehar izandako gertaera historikoak edo etorkizunean gerta zitezten nahi izango lituzketenak zerrendatzea.
- Bideoz entzungo duten ipuinaren amaiera taldeka asmatzea.
- Helduentzako gizarte-ekimen baten onurak zerrendatu eta sailkatzea.
- Pertsona helduei zuzendutako produktu bat taldeka asmatu eta aurkeztea.

### Zertan den:

- Gure pertsonaia ezkutuaren argazkiek bizitzaren atal gehienak erakutsi dizkigute: gaztetan, familia osatu zueneko... Orain, berriz, zahartzaroa irudikatuko dute bukaerako diren argazkiek eta horixe izango dugu hizpide. Hasteko, pertsona baten bizitzan zehar izandako gertaera historiko garrantzitsuen berri emango digu entzuteko gai batek. Ondoren, zahar samar sentiarazten gaituzten hainbat gertakari izango dituzte hizpide. Eta ipuin baten amaiera asmatu eta gero, jubilatuei zuzendutako ekimen baten berri izango dute eta horren inguruan hitz egingo. Amaitzeko, adineko pertsonentzako produktu bat asmatu eta aurkeztuko dute taldeka.

## PROZEDURA:

### 1

#### Atazaurrea

- Zahartzaroaz hitz egingo dugula aipatuko diezu; zehatzago: gure aiton-amonez. Euren liburuko galderen inguruan solas egingo dute. **(10')**

#### Ataza: entzundakoa gogoratu

- Entzuteko gai<sup>20</sup> bat jarriko diezu **(3. irratzi-pasartea)** zeri erreparatu behar dioten aipatu gabe, amona baten urteurren bati buruzkoa dela soilik. **(5')**
- Amona horrek bizi izandako gertaera historiko horietatik —narratzaileak aipatu dituenetatik— zein gogoratzen dituzten galdetuko diezu eta, esan ahala, arbelean idatziko dituzu. **(5')**

#### Feedbacka

- Asmatu duten ikusteko emaiezu entzuteko gaiaren transkripzioa (ikus 3.1. eranskinean). **(5')**

#### Atazaostea

- Talde txikitik, ikasleek orain arte bizi izandako gertaera garrantzitsu zein historikoen zerrenda egiteari ekingo diote. **(10')**
- Arbelan idatziko dituzu atera direnak eta denon artean erabakiko duzue dauden horietatik garrantzitsuenak zein diren. **(10')**

#### Atazaostea

- Denon artean etorkizunean izan litezkeen gertaerez arituko zarete, batez ere, eurek bizi izan eta ikusi nahi izango lituzketen gertaerez. **(10')**

<sup>20</sup> Egaña, Andoni. Amonak ehun urte bete ditu. Goizean behin. Euskadi Irratia.

- Bukatzeko, zahar samar sentiarazten gaituzten gauzez jardungo dute. Girotzeko, entzuteko gai<sup>21</sup> bat jarriko diezu (**4. irрати-pasarte**): bi gonbidatuk zahar samar sentiarazi zituzten gertakizunak azaltzen dituzte. Ikasleek ildo beretik kontaktuko dituzte euren esperientziak. **(15')**

## 2

### Atazaurrea: girotu

- Aiton-amonekiko harremanak aitzakiatzat hartuz, ipuinen mundura sartuko gara apur batean; izan ere, zaharrek eta ipuinek elkarren lotura handia dute. Zeregin horretarako euren liburuan dituzten galderak hartuko ditugu abiapuntu. **(10')**

### Ataza: bideoa ikusi ostean, ipuinaren bukaera asmatu

- Zahartzaroarekin zerikusia duen ipuin<sup>22</sup> bat jarriko diezu bideoan (**13. bideo-pasarte**). Bideoak bi zati ditu: lehenbizikoan, ipuinaren bukaera moztu dugu; halere, ipuinak nola bukatzen duen aipatzen du. Hor geldituko dugu bideoa, eurek amaiera asma dezaten talde txikitan jarrita. Horrekin ez dugu esan nahi ipuinaren bukaera bera asmatu behar dutenik, baizik eta euren bertsioa egin. **(10')**  
**Oharra:** Erosoago egin ahal izateko ipuinaren transkripzioaren zati bat dute euren liburuan, bideoaren 1. zatia dagokiona.
- Bukatu ostean, talde bakoitzak berea irakurriko du. **(10')**

### Feedbacka

- Egindakoa alderatzeko, bideoaren bigarren zatia jarriko diezu. Ondoren, aurkeztutako amaieretatik politena aukeratuko dute. **(10')**

### Atazaostea

- Ariketatxo bat egingo dute berriz ere taldetxotan bilduta: ipuinean mantak hartzen du indarra; izan ere, horixe da mutikoari istorioari buelta emateko bide ematen diona. Mantaren orde, ea beste gauza batzuk —mantak hartzen duen antzeko balorea izan dezaketen gauzak— bururatzen zaizkien. **(10')**

## 3

### Atazaurrea: aurrean

- Ataza honetan zehar jubilatutako jendearen okupazioaz jardungo dugu. Girotzeko albiste<sup>23</sup> baten hasiera jarriko diezu (**5. irрати-pasarte**) eta zer gertatu zen asmatu beharko dute. **(5')**
- Predikzio guztiak entzun ostean, gaiaren jarraipena jarriko diezu. Komentatu antzeko kasurik entzun ote duten. Zerbait entzun edo irakurri badute, esan azaltzeko. **(5')**

### Ataza: ekimen baten alde onak eta txarrak atera

- Beste entzute-gai<sup>24</sup> bat jarriko diezu (**6. irрати-pasarte**). SECOT elkarteko partaide batek euren berri ematen du labor-labor. Ikasleek entzungo duten horrekin nahikoa izango dute gutxi gorabehera zertaz ari den esateko. Horrela ez balitz, zuk zeuk zabaldu informazioa, baina ez gehiegi; izan ere, geroxeago elkarte horren inguruko informazio zabalagoa izango dute. Informazio horri zerbait gehitzekotan, esan ondoko hauxe: SECOT hainbat jubilatuk osatzen duten elkarte delat. Enpresa berriak eraiki nahian

<sup>21</sup> Noiz ohartu zinen zahartzen ari zinela? Goizean Behin. Euskadi Irratia.

<sup>22</sup> Etxeberria, Hasier. Mantarena. Kontaidazu. ETB.

<sup>23</sup> Albiste bitxiak. Goizean behin. Euskadi Irratia.

<sup>24</sup> SECOT elkarte. Goizean behin. Euskadi Irratia.

dabiltzan pertsoneri aholkuak debalde ematen dizkie, euren lan-esperientzian oinarriturik. **(5')**

- Talde txikitik jarriko dituzu eta beren liburuko taula beteko dute, ekimen horrek izan ditzakeen alde onak zein txarrak edota ez hain onak (bai gizartearentzat bai jubilatuentzat) jarri. **(10')**
- Euren jardunaren emaitzak idatziko dituzu arbelean guztiok ikusteko moduan eta eztabaidatxo antolatuko duzu. **(10')**
- Informazio zabalagoa izateko, hurrengo eta azken entzute-gaia<sup>25</sup> jarriko diezu **(7. irratipasarte)**. Entzun ostean, arestian bete duten taulari erreparatuko diote berriro. Orain informazio zabalagoa eta zehatzagoa izateak taulan eragina izan dezakeen baloratuko dute, hau da, zerbait aldatu edo gehituko luketen ikusi. **(15')**

#### **Feedbacka**

- Talde osoak zerrendatutako onuren artean zein den interesgarriena baloratuko dute. **(5')**

#### **Atazaostea**

- Lehen bezala talde txikitik bilduta, jubilatuentzako SECOT elkartearen antzeko beste ekimen batzuk proposatuko dituzte. Nolanahi ere, jubilatuek protagonista izan daitezkeen ekimenak. **(10')**
- Proposamen guztiak aurkeztu eta baloratu. **(10')**

## **4**

#### **Atazaurrea: erreportajea ikusi eta girotu**

- Urtero ospatzen den Nagusi Azokaren irudi batzuk ikusiko dituzte **(14. bideo-pasarte)** bideoan. Ikusi dutenari buruzko galderak erantzungo dituzte talde txikitik eta elkarrekin erantzunak komentatuko dituzte. **(10')**

#### **Ataza: nagusientzako produktuak asmatu**

- Publizitateak nagusiekin duen interesaren gainean egingo dute gogoeta. Euren hipotesiak egin ostean, aurkeztuko dituzte eta denon artean komentatuko ditugu. **(5')**
- Egindako hipotesiekin alderatzeko artikulua<sup>26</sup> irakurriko dute. **(10')**
- Adineko jendearentzako produktu, ekitaldi edo bestelako gauzaren bat asmatzen saiatuko dira, lehengo taldeak mantenduta. **(10')**

#### **Azalpena**

- Aurkezten dutenean, produktuaren xehetasun guztiak aipatu beharko dituzte. Era berean, azalpenerako baliagarriak suerta dakizkien baliabideak erabiliko dituzte, hala nola, marrazki, plano, argazki edo bestelakoak. **(25')**

#### **Feedbacka**

- Asmatutako gauzen artean zein den bideragarriena erabakiko dute, arrazoituz. **(10')**

#### **Atazaostea**

- Pertsonaia ezkutuaren azken argazkiak eta istorioari (biografiari) gehitzeko proposatzen zaiena<sup>27</sup> aztertuko ditugu.

---

<sup>25</sup> Mendiguren, Xabier. Munduan zehar. Euskadi Irratia.

<sup>26</sup> Nagusiak eta publizitatea (Internetetik hartua). Mundohogar.

<sup>27</sup> Uribe, Kirmen. Aita. Euskaldunon egunkaria. 1999/11/11

### 3. Eranskinak

## 1. BIDEO-PASARTEAK

### A. ATAZA: NOLAKO EGURRA HALAKO EZPALA?

#### 1. BIDEO-PASARTEA

■ Iraupena: 1'40''

El Tricicleren esketxa (bertsio mutua)

#### 2. BIDEO-PASARTEA

■ Iraupena: 1'40''

El Tricicleren esketxa

AMA Hemen da...

AITA Hauek al dira orduak?

SEMEA Gabon.

AITA Gabon! Polita iruditzen zaizu?

AMA Baina seme, zer ordu dira hauek?

SEMEA Iluntzeko bederatziak...

AITA Lasai esaten du gainera! Aurpegia behar da gero!

AMA Ez egin errietarik!

AITA Ez egiteko errietarik? Zenbat aldiz esan dizugu ez itzultzeko hiruak aurretik?

SEMEA Eta lo, non?

AMA Utz ezazu, nekatuta dago!

AITA Nekatuta? Lanean nekatuko zen, zeren parrandan...

SEMEA Eskerrak norbaitek lan egiten duen...

AITA Aizu! Niri berrikerarik ez e? Nik ez dizut sekula ezer eskatu, e? Nik eskatua nuen zure aita izatea?

AMA Mesedez, Jainkoaren izenean! Ez hasi!

AITA Ez hasteko? Badakizu zer den lan egitea? (..?..) sistema kapitalistaren baseak mantentzen kolaboratzea!

SEMEA Ikastera noa bihar azterketa daukat.

AITA Sssssttt! Ikastera? Zertarako ordaintzen dugu unibertsitatea? Hura jendea ezagutzeko da, txortan egiteko campusean eta gauza guztien aurka manifestazioak egiteko!

AMA Josep! Jainkoaren izenean!

AITA Suntsitu behar dugu hezkuntza sistema, bai ala ez?

SEMEA Karrera bukatuta konforme naiz.

AITA Konformista! Horixe zara zu, konformista hutsa! Zoaz, zoaz bai zure gelara! Lotsagabe hau niri tokatu behar! Hau ere!

AMA Ez ezazu jo gizona, ikasten ari da!

AITA Ah, ipini zu ere bere alde. Non daude gure garai bateko idealak?

SEMEA Gabon ama.

AMA Gabon seme.

AITA Zigarro gorririk bai?

SEMEA Badakizue ez dudala erretzen.

AITA Jodeerrrr! Oraintxe ez dago kanuto bat erretzerik ere nork bere etxean! Ekarri umeak honetarako! Potrozorriak!!!

### 3. BIDEO-PASARTEA

#### ■ Iraupena: 10'

*"Louvren egongo naiz eguerditik gora edo lehenago nahi baduzu"*. Vincent Van Gogh honelaxe zitaten da bere anaia Teorekin. Holandatik dator. Bere anaiarekin Louvren elkartzea normaltzat jotzen du. Era berean, bere anaia Teoren etxean bizitzea ere normaltzat jotzen du. Teok duela zazpi urtetik, Montmartre bulebarrean galeria txiki bat zuzentzen du baina, Boussod eta Valadon jaunen kontrolpean. Koadro inpresionistak sal ditzake baina bastardean bakarrik ez beheko solairuan. Van Goghek lantegi bat hautatu zuen: Cormon-ena. Luzaro ez zen gelditu baina, gogotsu lan egin zuen. Cormon-en etxean Toulouse-Lautrecen lagun egin zen eta batez ere, Emile Bernardena, honek berak baino 13 urte gutxiago zeuzkan. Vincent handik 4 urtera hil zen. Oso estimatua izan zuen lagun bat egin zitzaion: Aita Tanguy (Père Tanguy). Bere koadroak saltzen zizkiona lagun bati saltzen zizkion bezala. Rodin museoan dago hau. Van Gogh 1886ko erakusketa ikusteko garaian heldu zen Parisera.

.....

88. urtearen hasieran Vincent Midi argitsura abiatzeko irrikitan zegoen. Arlésérantz abiatu zen; hamabost orduko bidaia. Arlés aurkitu ondoren, Teori idatzi zion: *"Japoniar pintura maite denean, haren eragina nabari da; inpresionista guztiek horixe daukate batera. Orduan zergatik ez Japoniara joan, hots, Japonia bezalako herri batera: Midira?"*. Behin bakarrik, Vincent berehala ohartzen da bakarrean lan egiterik ez dagoela. Pintore elkarte bat amesten du; hementxe, Midin. Gauguin komentzitu nahi du. *"Gauguinek Pont-Aven utzi eta Arlésko "Etxe Horian" kokatzera etorri behar du"* dio. Vincent zain zeukan eta Gauguinek zain egonarazten zion. Azkenik iritsi zen baina, iritsiera honek ez zeukan Vincentek ematen zion esanahirik.

.....

*"Arlésko dantzatokia"*, Van Gogh. Kolore puruzko orbanen erabilera, forma biribilkoiak kolore biziz tratatuak, aurpegietan deformatzerainoko espresioa bilatuz. Gauguinen presentzia bere eraginagatik igarri zen baina, eguneroko bizimodua, zaila, astuna eta trumoitua zen. Gau batez Vincentek bizar labainaz mehatxatu zuen Gauguin. Gauguinek Vincenten seinua gelditu eta hotelera alde egin zuen lo egitera. Bere burua bakarrik ikustean, Vincentek belarri-gingila moztu zuen eta sobre batean Racheli, prostituta bati, eraman zion. Albiste hau Forum Republicain-en argitaratu zen; huraxe zen Vincenten izena egunkari batean lehenengoz agertzen zen eguna.

.....

Teo ezkontzen da. *"Zure ondasunak iraungo du"* idatzi zion Vincentek *"... besterik ez, emaitza laztan hau zure emazteari"*. Vincentek Saint-Rémy-de-Provenceko asiloa hautatu zuen. *"Ospitaleko Pasabidea"*. Kuadro hau New Yorken dago, Arte Modernoaren museoan. *"Saint-Rémyko Sain Jean (Saint-Paul (?)) ospitalea"*, berriz, Orsayko museoan dago. *"Ospizio batean betiko gelditu behar banu, ohituko nintzateke eta bertan pintatzeko gaiak aurkituko nituzkeela uste dut"*. Saint-Rémyn bere Arlésko gelaz oroitzen da eta hiru aldiz pintatzen du. Bertsoetariko bat Chicagon dago, beste bat Amsterdamen eta beste bat Orsayn. *"Vincenten logela Arlésen"*, Van Gogh 1889. *"Logelaren diasporak amets eragiten du"*. Orsayko museoan, Arlésko logela "Siestaren" ondoan eskegita dago. Hau, Van Goghek zeukan Milleten grabatu baten berprodukzioa imitatuz egina da. *"Siestan"* bikote bat dago, logelan ohe estu batean, gutxienez bi burko daude. *"Ni pintore gisa sekula ez naiz ezer izango; ziur-ziur nago"* idatzi zion Teori.

.....

Laster Vincentek ezingo du asiloan egoterik jasan. Teok Gachet doktorearen etxera eraman zuen Auvers-sur-Oisen; pinturazalea hura ere. Van Gogh, *"Gachet doktorearen erretratu"*.

*"Gachet doktorea egiazko laguna da eta anaia berri bat bezalakoa. Gorputzez eta gogoz hain antzekoak gara... Lehengoan bere erretratu pintatu nuen". Gachet doktorearen erretratuak adreilu bero eta eguzkitan errearen koloreko aurpegia erakusten digu: Ile gorrixka, kapela zuria mendixka urdinezko hondo paisaiak inguratuz, bere janzkera itsasosteko urdina; horrek aurpegia nabarmentzen eta zurbiltzen diolarik. Nahiz eta adreilu kolorekoa izan, eskuak, tokologo eskuak, aurpegia baino zurbilagoak dira. "Gehien berotzen nauena, beste guztia baino askoz, askoz gehiago nire langintzan, erretratu da; erretratu modernoa. Ikusten duzunez, nahi nuke guzti hori badezakedala esatetik urrunago baina, saiatzen naiz, behintzat, hemendik mende baterako jendearentzat agerpen bat bezalakoak izateko erretratuak egin nahi nituzke". Van Goghek Auversko elizaren erretratu Gachet doktorearena egin zuen bezala, intentsitate beraz, sentimen beraz pintatu zuen dirudienez. 1890.ean uztailaren 27an Van Goghek bere buruari errebolber tiro bat eman zion bihotzean. Gachet doktoreak aztertu zuen; diagnostikorik ez da ezagutzen. Ohean zegoen, pipa erretzen. Hil aurretxoan, bere anaiari esan zion: "Orain etxera itzuli nahi nuke". Lehentxoago esana zuen: "Ez egin negarrik. Denen onerako egin dut". 37 urte zituen. Il batzuk geroago, Teok zentzuna galdu zuen eta hil egin zen. Bi hilobiak hementxe daude, Auversen.*



## B. ATAZA: BILTZEN GINENEKOA

### 4. BIDEO-PASARTEA

■ Iraupena: 2' 22''

- AURKEZLEA Bueno, Jesus M<sup>a</sup> Goñik, egia esan (..?..) aitortu beharrean nago, tarteka matematika klaseetan, bueno, horrelako ekuazioak eta logaritmoak eta horrelako... sartzen zizkigun; baina tarteka bere jokoekin etortzen zitzaigun eta izugarri pozten zigun goiza edo arratsaldea. Hori gogoan daukat, Joxe Mari.
- JESUS M<sup>a</sup> GOÑI Aurkezlea Bai, pozten naiz zuk hori esateak, *hombre!* Niretzako ilusio handia da. Ez da telebista aurrean gaudelako, e? Etortzen zen bere jokoekin eta tira... Orain, atsedean txiki bat hartuko dugu eta, ja, ea burua joaten zaigun eta ea lortzen duzun gu ikasleok garai hartan bezalaxe... ea ikus-entzuleekin lortzen dugun Joxe Mari. Jokoren batzuk ekarri dituzu... horietakoak, ezta?
- JESUS M<sup>a</sup> GOÑI Aurkezlea Bai, noski! (..?..) da eta horretarako zuek kolaborazio... zuen laguntza behar dut, bai...
- AURKEZLEA Aurkezlea Ea, bota!
- JESUS M<sup>a</sup> GOÑI Aurkezlea Ea, paper batean apuntatu behar duzu, bada, nik noski ikusi gabe, zenbat anai-arreba zareten.
- AURKEZLEA Aurkezlea Ah... zuk telebistan ez begiratu. Zenbat? Bale, badakit bai. Eta? Ze eragiketa egin behar dut?
- JESUS M<sup>a</sup> GOÑI Aurkezlea Nik ez dut zenbaki hori ikusiko, ezta?
- AURKEZLEA Aurkezlea Ez dizut esango... Ea!
- JESUS M<sup>a</sup> GOÑI Aurkezlea Orduan nik eskatzen dizudana, zenbaki hori 2 zenbakiaz biderkatzea.
- AURKEZLEA Aurkezlea Bider 2. Ea, egin dut, bai...
- JESUS M<sup>a</sup> GOÑI Aurkezlea Bai... Eta orain 1 gehitu.
- AURKEZLEA Aurkezlea Gehitu.
- JESUS M<sup>a</sup> GOÑI Aurkezlea Eta orain emaitza bider 5.
- AURKEZLEA Aurkezlea Bider 5... Egina, bai.
- JESUS M<sup>a</sup> GOÑI Aurkezlea Bale... Eta orain zenbatu (gehitu) behar diozu horri zu zure anaia artean zenbatgarrena zaren.
- AURKEZLEA Aurkezlea Ni zenbatgarrena naizen?
- JESUS M<sup>a</sup> GOÑI Aurkezlea Horixe!.
- AURKEZLEA Aurkezlea Zenbatu? Bai, eta?
- JESUS M<sup>a</sup> GOÑI Aurkezlea Orduan, orain zenbakia esan behar didazu; atera zaizuna.
- AURKEZLEA Aurkezlea Atera zaidan zenbakia? Bai, 48.
- JESUS M<sup>a</sup> GOÑI Aurkezlea Bueno, *pues...* ondo. Orain zenbaki horri 5 kendu...
- AURKEZLEA Aurkezlea 5 kendu...
- JESUS M<sup>a</sup> GOÑI Aurkezlea Eta zer ateratzen zaizu?
- AURKEZLEA Aurkezlea 43. Hor ikusten ari gara... etxean ikusten ari zarete, Jesus Mari, e?
- JESUS M<sup>a</sup> GOÑI Aurkezlea Lehenengo zifra zein da? Bueno, hamarrekoen zifra hobeto esanda.
- AURKEZLEA Aurkezlea 4
- JESUS M<sup>a</sup> GOÑI Aurkezlea Zenbat anai-arreba zarete?
- AURKEZLEA Aurkezlea Gu 4.
- JESUS M<sup>a</sup> GOÑI Aurkezlea Eta bigarren zifra, zein da?
- AURKEZLEA Aurkezlea 3
- JESUS M<sup>a</sup> GOÑI Aurkezlea Eta zenbatgarrena zara?
- AURKEZLEA Aurkezlea Ni hirugarrena...
- JESUS M<sup>a</sup> GOÑI Aurkezlea Txalo txiki bat, ezta?
- AURKEZLEA Aurkezlea Txalo txiki bat egingo dugu... 43, *klaro*. 4 anai-arreba gara eta 3. Orduan egin behar da: anai-arreba kopurua hartu, bider 2 gehi 1 hor jarri... ea ikusteko moduan garen...gero horri bider 5, gero 3 hori gehi 3... nire kasuan egin duguna da hirugarrena naizelako. Eta gero horri 5 kendu

ezkero, ateratzen da bi zifrako... Bueno, agian 15 anai-arreba eta izanez gero?

JESUS M<sup>a</sup> GOÑI Baina, juxtu gaurko egunean horrelako problemarik ez dago. Osea, ni lasai asko...

AURKEZLEA Beraz, 43. 4 anai-arreba eta ni hirugarrena kasu honetan. Eta beti funtzionatzen du horrek, e?

JESUS M<sup>a</sup> GOÑI Beti, beti, beti... Askotan zuk aipatu dituzun...

## 5. BIDEO-PASARTEA

### ■ Iraupena: 6' 27''

#### 1. zatia

AURKEZLEA Tira, orduan gaur, alarma hotsik ez.

BIXENTE Bat ez, lasai-lasai!

AURKEZLEA Pozten naiz, pozten naiz. Horren lasai ikusteak gustua ematen du; beste patxada bat izaten duzu berrikerarako ere eta... Tira dena den, gaur berriketa pixka bat egin beharko duzu ba... Jendeak galdezka segitzen du... Segi, segi, agurtu lasai. Uste dut ondarrutarrak direla.

BIXENTE Ondarrutarrak?

PUBLIKOAK Baaaiiii!!!

BIXENTE Bota, ze ze ze galdera izan da gaur?

AURKEZLEA Ikusle batek beste galdera egin digula: jakin nahi du zuek zenbat senide zareten.

BIXENTE Zenbat senide?

AURKEZLEA Eta ba, askotan elkartzen ote zareten eta... baina, zenbat senide zarete zuek?

BIXENTE Senide? Hamar. Hamar anai-arreba.

AURKEZLEA Askos...

BIXENTE Gure aita eta ama ez ziran lo egon urte osoan. Gure amak pastillak hartzen zituen, e? Gazte-gaztetatik baina, erreumaren kontrakoak.

AURKEZLEA Eta zu zenbatgarrena zara?

BIXENTE Ni bigarrena. Horregatik naiz ni Bixente. Bi-xente. Zer? Zaharrena, neska, Maddalena. Lehena. Ba, ba bai! Bai oso grazioso egin zitzaiezen nonbait gure gurasoei eta hola. Bai, bai eta bat jaio orduko, hurrengoaren izena asmatzen hasten ziran. (..?..) Orduan ez zegoen entretentzeko (..?..) ez tribialik, ba, horretan. Eta gainera, asko etorriko zirela pentsatuz ba, ba izenak gogoratzeko ere hobea. Horixe. Hirugarrena, Irune.

#### 2. zatia

IRUNE Ba, ba... Eta laugarrenarentzat, zera pentsatu zuten: Laura. Bai, Laura. Neska izango zarela konbentziturata zeharo. Gure amari erreumak esaten omen zion mutila o neska izango ote zen. Bai... eta... horregatik, laugarrena gizajoa, Lauro. Lauro bai, bai.

AURKEZLEA Eta izen horrekin al dago?

BIXENTE Ez, ez. Aldatu zuen, aldatu zuen. Iñaki, orain Iñaki da. Guk amorrarazteko, amorrarazi nahi dugunean, Laurito, esaten diogu, Laurito.

AURKEZLEA Maddalena, Bixente, Irune eta Laurito. Eta bosgarrena?

BIXENTE Bosgarrenarentzako ez zuten izenik asmatu. Ez, ez... Eta Iñigo jarri zioten, Iñigo. Eta guk, guk Boston esaten diogu noizean behin.

AURKEZLEA Aizu, eta hainbeste anai-arreba izanda, e... denok elkartzen al zarete inoiz?

BIXENTE Bai, bai. Urtean behin, urtean behin. Maiatzaren azken igandean. Aurreko astian izan ginen bazkaltzen.

AURKEZLEA Elkartu berriak orduan...

- BIXENTE Bai, bai. Jatetxe osoa hartu behar izan genuen, noski! Jatetxe osoa. Pentsa, aita, ama, hamar anai-arreba, hamasei iloba, *postizuak* – mordoxka bat-, eta koinatua, Pako. Bueno guk koinatu, koinata batzuk badauzkagu baino, koinatua, koinatua, Pako. Jatorra, jatorra tipoa, baina astun samarra batzuetan. Bixente ez den horietakoa, *joer!* Zuk desgrazian bat (..?..) kontatu, ba hari gauza bera baino gehiago. Handiagoa. *Jossuss!* Eta jatorra, baina eskerrak urtean behin besterik ikusten ez dugun, Bai. Eta cognac pittin bat edaten duenean, akabo! Jota kantatzen hasten da; nafarra baita. Ba, ba, bai. Orain Osasunan dago (..?..): “Zer moduz Pako?” “Primeran, primeran”. Bai, bai hor ibiliko da Sadar inguruan bueltaka. Seguru! Ba, esan dizut Cognac pittin bat hartu ezkerro, akabo! Jota kantatzen hasten da. Guk badugu filosofia bat, e?: koinatua eta cognac-a *koñazo* galanta! Jartzen da hola zutik eta “*Quisiera, quisiera, quisiera volverme hiedraaaaaa*”. Eta gainera, neri gitarrarekin laguntzeko esaten dit, gitarrarik gabe “*trunda trunda trunda tron*”. Eskerrak bazkarik (?) animatzeko Andoni dagon. Andoni, anaia gazteena. Anaia gazteena, Andoni. Ze, ederra pieza! Urtero neskalagun ezberdinarekin etortzen da. Atzerritarra beti. Bai, berak dauka filosofia bat, e?: emakumeei zenbat eta gutxiago ulertu hobe. Hori ez da filosofia txarra, e? Batzutan biak euskaraz hitz eginda ere, ez da izaten elkar ulertzeko modurik eta ez da... Ez pentsa!
- AURKEZLEA Orduan, atzerritarrak, e?  
BIXENTE Atzerritarrak, bai. Orain dela bi urte ingelesa. Ingelesarekin etorri zen. Wendy. Iaz, berriz, frantsesa. *Fransuas, Fransuas*. Eta guk anai-arrebak bromazaleak gera eta mahaitik jaikitzen zen bakoitzean esaten genion: “*Fransuas, nora zuaz?*”.
- AURKEZLEA Zuk bertsolari ezpala baituzu Bixente. Baietz ba! Nik aspaldi antzeman nizun zuri.
- BIXENTE Eta aurtan, aurtan japonesa. Misuko, Misuko, bai. San Ferminetan sartu zen nonbait eta hantxe... Neska jatorra. Euskaraz dagoeneko gauza pare bat ikasi du, e? Bai, bai: “Osasuna”. Eta bestea zera: “Ganba gehiago”. Ganba gehiago esaten du, e? Ez da batere tontoa, ez da batere tontoa, ez. Lehengoan: “Misuko nahi duzu esparragoa?” eta: “Ganba gehiago”. Ganba jan Misuko, ganba jan! Nik ez nuen batere probatu! Bueno, bueno, bueno. Presupuesto ederra dauka Andonik ganbatan, presupuesto ederra. Ederki bazkaldu genuen.
- AURKEZLEA Noski, jotaren bat kantatuko zuen koinatuak...  
BIXENTE Kantatuko ez zuen, ba. Jakina! Hantxe egon zen ordubete jo ta fuego. Berak jota eta ni fuego, *tranga tringa tringa tron, tron*. Anaia-arreba guztiak zera, komunera joaten hasi ziran banan-banan. gero taldeka. Ni han: *tranga tringa tringa tron*. Ama ere bai. Ama gajoa, ba hantxe entzuten. Ama eta ni.
- AURKEZLEA Amari gustatzen al zaio koinatuak nola kantatzen duen?  
BIXENTE Gustatu? Gor samarra dela, gor samarra dela baina, hantxe egon zen, hantxe egon zen. Errepertorioa bukatu zitzaion noizbait eta bueno orduan hasi ginen anai-arrebak kantatzen zerak, betikoak, badakizu: “Hegoak ebaki banizkion, lara laralalala. Gero Carussok erakutsitakoak, “O sole mio”, “Figaro” eta horiek denak. Bai, ba al dakizu nola bukatzen dugun guk urtero-urtero bazkaria...

# C ATAZA: ZORIONEAN ETA EZBEHARREAN

## C1 ATAZA: FAMILIA

### 6. BIDEO-PASARTEA

■ Iraupena: 2' 52''

Ezkontzaren inguruan<sup>28</sup>

1. AURKEZLEA ... galdera, benetako galdera pisuduna, zera da: ezkondu ala ez ezkondu? Hortxe dago koska.
- KAZETARIA Nik uste nuen ezkontzea gauza ona zela baina, ezkontzen diren guztiek esan didate ez ezkontzeko. Ea jendeak argitzen didan zer den hobe. Nortzuk bizi dira hobeto ezkonduak ala ezkongabekoak?
1. ELKAR. Ba, nik uste dut bakoitza desberdina badela. Batzuek ezkondu gabe eta beste batzuk ezkunduta.
2. ELKAR. Ezkongabekoak.
- KAZETARIA Zergatik?
2. ELKAR. Nahi dutena (.?.?) direlako.
- KAZETARIA Ezkonduak?
3. ELKAR. Ezkondu gabekoak.

.....

- KAZETARIA Ze gauza on dauka ezkontzeak?
4. ELKAR. Gutxi, ez dizkiot topatzen.
5. ELKAR. Segun zeinentzako den. Batzuentzat txarra eta beste batzuentzako ona.
- KAZETARIA Eta zuretzako?
5. ELKAR. Niretzako ona.
6. ELKAR. Problema ez da ezkunduta egotea ere ez. Problema izaten die, bueno problema... umeen asuntua.
- KAZETARIA Eta ze alde txarra dauka ezkontzeak?
2. ELKAR. Ez dakit... Ez dakit, ezkontzen naizenean esango dizut.
7. ELKAR. Niretzako ezer txarrik. Niretzako ez niri ondo joan zitzaidan, *asike* niretako ezer ez.
- KAZETARIA Ze alde ona dauka ezkongabeak?
2. ELKAR. Ezkongabeak alde onak? Denak.
- KAZETARIA Denak bentajak dira. Eta ni ere ez naiz ezkonduko ordun!

(film baten irudiak).

- KAZETARIA Ezkonduak zer estimatzen du gehiago, ohea ala lapikoa?
8. ELKAR. Ezkonduak? Ja, ja, ja... Biak baina, ja(da) urte asko doazenean igual lapikoa
4. ELKAR. Ezkonduak gizonezkoak baldin badira, agian igual lapikoa... ez dakit.
- KAZETARIA Eta emakumezkoak baldin badira?
4. ELKAR. Ohia.
- KAZETARIA Barkatu?
4. ELKAR. Ohia, seguru.
9. ELKAR. Je, je, je. Biak, bat o beste ondo dira... je, je, je.
3. ELKAR. ... ez, lapikoa bai... ohea... ohea, gauean ohea eta gero lapikoa.
- KAZETARIA Nolakoa izango litzateke egoera onena?
3. ELKAR. Ba, *soltero* dirua nahikoekin.

<sup>28</sup>Galdestreet. ETB

KAZETARIA Hemezortzi urte edo hogei urte edukiko bazenu ez zinateke ezkonduko?  
3. ELKAR. Agur...  
11. ELKAR. Nik halako sasoiari (..?..).  
KAZETARIA Emadazu mesedez aholku bat bikoteren bat gutxienez aurkitzeko.  
4. ELKAR. Aber ba, oso goxoa izan behar zara, matxista ez, ez... Ez zara?  
KAZETARIA Ez naiz.

.....

KAZETARIA Jendearen iritziak entzun arren, erabaki ezinik nago. Orain alde onak eta alde txarrak nabarmenago ikusten ditut. Itxaron egin beharko dut...

## 7. BIDEO-PASARTEA

■ Iraupena: 2' 20''

Ezkontza aldrebesa<sup>29</sup>

AITA Ez al huen esan etxeakoak eta lagun kuttunak bakarrik?  
ANDREGAIA Hamar gonbidatu dira guztira!  
AITA Gutxi iruditzen zain?  
ANDREGAIA Zikoitza! (?).  
AITA Nik ez dut bazkaria ordaindu behar eta!  
ANDREGAIA Ah, bide batez, tori! Zure bildumarako...  
AITA Oso polita... Nor da hori? Enrik? Jordirekin ezkondu behar huela uste ninan!  
ANDREGAIA Jordirekin? Mesedez aita, gezurra dirudi! Hilabeteak dira eta banandu ginela.  
AITA Baina ez al zineten berriz hasi?  
ANDREGAIA Eta berriz eten eta Enrikekin itzuli nintzen.  
AITA Hortaz, Sergirekin eta besterekin... nola zen? Joanekin? Noiz irten hintzen?  
ANDREGAIA Nola Sergi? Aaa, Sergi!... Duela sei hilabete izan zen hori...  
AITA Eta Joanekin?  
ANDREGAIA ...Joanekin gero, Enrikekin ibili ondo... O! Enrik! O Enrik, hau nahastea hau! Joanekin ezkondu behar dut, ez zurekin. Banandu egin ginen!  
ENRIK Aaaa. banangoen ba, ni. Harrituta nengo. Zurekin ezkondu? Marielarekin nabil eta!  
MARIELA Nirekin? Seguru?  
ENRIK Bai... Ez?  
MARIELA Ez genuen eten?  
ENRIK Baina berriz hasi ginen!  
ANDREGAIA Joan! Zertan zaude hor?  
JOAN Zer?  
ANDREGAIA Ez al zenuen nirekin ezkondu behar?  
JOAN Ni zurekin? Ni Martarekin nabil... ez?  
MARTA Nirekin? Bai zera! Ni Eduardekin nabil.  
EDUARD Arraioa, egia da!  
JOAN Jakina! Ni zurekin nenbilen!  
ANDREGAIA Esan dizut ba!  
JOAN Bai, bai, baiiii! Egia da! Aizu, elkarren ondoan zahartzearena ahaztu, e? Ez nintzen oroitzen...  
MARTA Lasai, hitz egingo dugu.  
ENRIK Barkatuko didak!  
JOAN Tira! Eguneroko kontuak.  
APAIZA Ederki, dena konponduta? Jarrai dezagun hortaz...  
GIUSSEPPE Ez! Itxaron!

---

<sup>29</sup> El Tricicle. *Dinamita*. ETB

APAIZA           Eta orain, zer?  
 GIUSSEPPE       Hasi garenez, dena argitzea onena.  
 ANDREGAIA       Zer?  
 GIUSSEPPE       Ni naiz andregaiaren aita.  
 DENAK            O, ooo... Jesus!!!  
 GIUSSEPPE       Neuri dagokit aldarera eramatea.  
 AITA              Egia al da hori, Maria?  
 AMA              Baiiii...  
 AITA              Etxeko gidariarekin, etxeko gidariarekin engainatu nauzu? Eta gure harremana zer, Giuseppe?  
 GIDARIA          Sentitzen dut. Mariarekin egotearren nenbilen zurekin.  
 ANDREGAIA       Aitaaaa!  
 GONBIDATU BAT   Hasi garenez, aitorpen bat egin nahi nuke...

## 8. BIDEO-PASARTEA

### ■ Iraupena: 1'

Apaiz ganorabakoa<sup>30</sup>

APAIZA           Eduardo, nahi duzu emaztetzat hartu... Ze izen du?  
 EDUARDO         Maria.  
 APAIZA           Maria... eta promes egiten duzu fidela izango zatzaizkiola oparotasunean eta...

#### 1. etena

EDUARDO         Eta ezbeharrean!  
 APAIZA           Hori da! Eta ezbeharrean, osasunean eta gaixotasunean, eta agintzen duzu ohoratuko eta etxeratuko (?) duzula...

#### 2. etena

EDUARDO         Heriotzak banandu arte!!  
 APAIZA           ... Heriotzak banandu arte?  
 EDUARDO         Bai, nahi dut!  
 APAIZA           Eta zuk, Maria, nahi duzu...  
 EDUARDO         Nire berdina.  
 APAIZA           Zeren berdina?  
 EDUARDO         Niri esan didazun berdina!

#### 3. etena

APAIZA           Ee... Nahi duzu berari esan diodan berdina?  
 MARIA            Bai, nahi dut.  
 APAIZA           Senar-emazte egiten zaituztet. Orain nahi baduzu... orain nahi baduzu... nahi baduzu...

#### Azken etena

EDUARDO         Nahi baduzu, eman musu bat andregaiari!!!  
 APAIZA           Ah bai?

## 9. BIDEO-PASARTEA

### ■ Iraupena: 1'

El Tricicleren Dinamitaren bakarreko ezkontza esketxa (soinurik gabe)<sup>31</sup>

<sup>30</sup> El Tricicle. *Dinamita (apaiz ganorabakoa)*. ETB

<sup>31</sup> El Tricicle. *Dinamita (bakarreko ezkontza)*. ETB

## 10. BIDEO-PASARTEA

### ■ Iraupena: 1'

El Tricicleren Dinamita. Bakarreko ezkontza<sup>32</sup>

- APAIZA            Bakarrik bizitzen jarraitu nahi duzu mendekotasunik gabe eta honek dakarren askatasunean heriotzara arte?
- EZKONGAIA      Bai, hala nahi dut.
- APAIZA            Topo egiten duzun aurrenekoaz maitemindu, berarekin ezkondu, familia bat osatu eta zure bizitza hipotekatzeko tentalditik urundu nahi duzu?
- EZKONGAIA      Bai, hala nahi dut.
- APAIZA            Eta bukatzeko, zeure bizimodua egitea agintzen duzu inori azalpenak eman gabe? Onean eta txarrean osasunean eta gaixotasunean?
- EZKONGAIA      Bai, hala agintzen dut.
- APAIZA            Montse, ezkongabea eta inolako erantzukizunik gabea deklaritzen zaitut. Has zaitezke pozez oihuka.
- EZKONGAIA      Yiuuupiiiiii!!! Oe, oe, oe, oeeee... oe, oeeee.

---

<sup>32</sup> El Tricicle. *Dinamita (bakarreko ezkontza)*. ETB

## C2 ATAZA: HAURRAK URRI

### 11. BIDEO-PASARTEA

■ Iraupena: 2'

Non jaio. *Bertatik Bertara* (soinurik gabe)

### 12. bideo-pasartea:

■ Iraupena: 2'

Non jaio. *Bertatik Bertara*

**AURKEZLEA** Guk, hola, abaniko moduan egin nahi izan dugu segun eta non jaio emakume bati horrek asko kondizionatzen dio; bere bizimodua bat edo beste izango da. Eta, bueno, hori erakutsi nahi genizuen: munduan non jaio, ba, horrek mugatzen zaituela.

**KAZETARIA** ... Kolore argiak, alaiak, xumeak... Moda kilikagarria dator 2001. urteko udaberri eta udararako. Zilborra, tripatxoa edota eskote erakargarriak erakusteko trebezia azaldu zuen Donatella Versaccek Milango moda erakustaldian. Modan daude modelo hauen gorputz eta ibilerak, Milango moda gori-gorian *txispak* ateratzen eta ereduak finkatzen. Oso bestelakoa da, ordea, Indiako moda. Begira ama honek daraman modeloa. Ez da hain juxtu *pasarela* baten erakustekoa baina, beharko luke, bai, *pasarela* bat bere tripatxotik atera diren 28 seme-alabak erakusteko. Bai, bai... ondo entzun duzue. Argi dago. Emakume honek beste erabilera bat eman dio bere gorputzari. Makro-familia hau New Delhitik hurbil dagoen herri batean bizi da, eta egia esan, nahiko lan eman die agintariei familia honen produktibitate tasa dela-eta. Omar Mohamed eta emaztea 29. haurraren zain daude. 28 horietatik 24 bizi dira eta aitaxoren esanetan denak ari dira zer edo zertan; gehientsuenak lanean dabilta saltzaile eta gatzetxoena oraindik eskolan daude. Seme-alaba guztietatik 8 daude ezkondata eta harritzekoa ez den bezala, gure super-guraso hauek ez dute gogoratzen jadanik zenbat iloba eta biloba dauzkaten; ezta guztien izenak ere. Izan ere, aizue, eginkizunak, arazoak eta buruhausteak ezberdinak dira Indiako emakumeentzat eta Milango modeloentzat.



# D ATAZA: ZAHARRAK BERRI

## 13. BIDEO-PASARTEA

■ Iraupena: 2' 09''

### 1. zatia

HASIER ETXEBERRIA: Gauza handia da estatistika, ikaragarria. Primerakoa da egia borobilak begi-bistan jartzeko. Esate baterako, estatistikari esker dakigu hirietako eta herrietako pertsona zaharrak landareen oso berdintsuak direla. Hartzen duzu zahar bat, aldatzen duzu lekuz edo etxez, eta, estatistikak esango dizu hirutik bat hil egiten dela landareen antzera. Egia, asko aurreratu du estatistikak.

Nik badaukat ipuin bat oso txikia nintzela entzundakoa eta burutik sekula kendu ez dudana:

Etxe batean bazen Martin izeneko ume bat. Oso adiskide zuen bere aitita, batez ere, elkarrekin arrantzara joateko zuten zaletasun bati esker. Baina zoritxarreko egun batean Martinen aitak halatsu esan zuen:

—“Aitita zeharo zahartu zaigu eta zahar-etxera eramango dugu datorren astean. Begiratu dugu eta inguruko zahar-etxerik dotoreena aukeratu dugu”.

Martinek egin zituen protestak, egin zituen negarrak eta isuri zituen malkoak, baina guztiak izan ziren alferrik; erabakia hartuta zegoen. Hala, ba, zoritxarreko egunean autoan joan ziren zahar-etxera Martin, aita eta aitaita. Atarira iritsi zirenean, Martinek ez zuen nahi izan aitaitari agur esaterik, ez zen autotik jaitsi. Orduan aitak hala esan zion:

—“Martin ekar ezak hor autoaren atzeko aldetik manta dotore hori. Aitaitari oparituko zioagu sekula hotzik pasa ez dezan”.

Martinek orduan irmoki, batere dardarik gabe, hotz-hotz halaxe esan zuen:

### etena

Esan beharrik ez dauka egun hartan hiru gizon itzuli zirela autoan berriro etxera.

### 2. zatia

—“Martin ekar ezak hor autoaren atzeko aldetik manta dotore hori. Aitaitari oparituko zioagu sekula hotzik pasa ez dezan”.

Martinek orduan irmoki, batere dardarik gabe, hotz-hotz halaxe esan zuen:

—“Ez aita. Hartu manta eta ebaki erditik, eta, gorde erdi bat zuretzat, zahartzen zarenerako”.

Esan beharrik ez dauka egun hartan hiru gizon itzuli zirela autoan berriro etxera.

#### 14. bideo-pasartea<sup>33</sup>: Nagusi Azoka. Bertatik Bertara. ETB

##### ■ Iraupena: 1' 16''

1. NESKA           ... umore ona, bueno, jendearen arabera, pertsonaren arabera.  
KAZETARIA       Baina orokorrean zuei zer iruditzen zaizue?
2. NESKA           bai, behintzat hemendik, ba, jendea umore ona dauka, eta pazientzia eta hori beste gauza da.
- .....
1. ZAHARRA       Ez da hori egia. Guk badaukagu umorea eta pazientzia, eta denak dauzkagu.
- KAZETARIA       Ez da galtzen batere?
1. ZAHARRA       Ez horixe!
2. ZAHARRA       Galtzeko esperantzarik ez... galtzeko esperantzarik ez! Adarrak gora begira jarrita ere (...?...?) galtzeko esperantzarik ez!
3. ZAHARRA       Urteekin dena galtzen da.
4. ZAHARRA       (?) ipini, gauza txarrak alde batera itxi eta onak hartu.
- KAZETARIA       Iñaki, baina hemen lan asko egiteaz aparte, gero hemen bertan *juergatxo* pixka bat egin beharko dute...
- IÑAKI             Bai, bai. Noizean behin esaten dute: "Bueno Iñaki, gero arte banoa dantzatzera!", eta, bueno hemen, neu bakar-bakarrik geratzen naiz hemen eta...

---

<sup>33</sup> Nagusi Azoka. Bertatik Bertara. ETB

## 2. IRRATI-PASARTEAK

### B ATAZA: BILTZEN GINENEOA

#### 1. IRRATI-PASARTEA

■ Iraupena: 8' 11''

MUNDUAN ZEHAR Xabier Mendigurenekin.

1. ESATARIA      Neba-arreben harremanak, anai-arreben arteko harremanak. Hori azpimarratu duzu zuk, besteak beste. Hor historia bereziren bat ba al da Xabier?
- X. MENDIGUREN      Bai. Dirudienez, segur aski, ba, ikerketa bat baino gehiago egin da gai honen inguruan. Baina, denok dakigu, ba, familia batean banaka... senide banaka batzuk direnean, ba, bakoitzak baduela halako izaera berezi bat, halako jite berezi bat. Eta, bueno, lehen esan bezala, ikerketa batzuk egin dira. Nik hemen aurrean daukadana Franz Saloui (?) izenekoak Masachussets Instituto Technology horretan egindakoa da. Dirudienez, hogeita zazpi bat urtez ibili da ikerketan eta sei bat mila pertsonaia ospetsuren biografiak aztertu ditu lan hau egiteko; beraz, esan dezakegu material ugari samar erabili duela. Alderdi horretatik badirudi ondo dagoela eta berak ondorio batzuk atera dituela. Bueno, gero ikusiko dugu benetan oso aintzat hartzekoak diren ala ez; hori beste kontu bat da.
- Ondorioetan behintzat berak hala dio: lehen seme-alabak, edozein bikoteran lehen seme-alabak, baduela halako izaera edo ezaugarri berezi bat eta hori, pixka bat kontserbadore eta autoritario samarra izateko joera izaten dela.
2. ESATARIA      A bai, e?
- X. M.      Hori esaten du berak. Eta esaten duen horren sendogarriztat, ba, Stalin, Churchill, Roosevelt eta holako batzuk aipatzen ditu.
2. ESATARIA      Zu lehendabizikoa al zara?
- X. M.      Ni neu ere bai, banaiz.
2. ESATARIA      Zu, Jon?
1. ESATARIA      Azkenekoa. Azkenekoaren berri ematen al du?
- X. M.      Bai, bai, ematen du.
1. ESATARIA      Geroxeago aipatuko dugu orduan.
2. ESATARIA      Ni ere tartekoa, beraz.
1. ESATARIA      Tartekoa zara zu? Lehenbizikoa, beraz, normalean lehenbiziko seme-alaba hori normalean autoritario samarra eta kontserbadorea.
- X. M.      Bai joera hori duela esaten du eta berak gero arrazoitzen du. Beste kontu bat da lehenengo guztiak horrelakoak izaten diren gero bizitzan, eguneroko bizitzan derrigor baina, halako joera bat ikusten duela berak esaten du.
- Bigarrenari buruz esaten du, berriz, irekitasun, *errebeldia* eta, batez ere, kausa historiko erradikaletan, ba, tarteko izateko joera nabari zaiela; hau da, ba hauek iraultzaileagoak izaten direla, aurrekoa kontserbadoreagoa den bezala. Eta horren alde Darwin, Copernico, Benjamin Franklyn eta Fidel Castro, esate baterako, aipatzen ditu; joera horrena.
2. ESATARIA      Bestelako esaerak ere badaude, alegia, esaten dena, ba, zaharrenak irekitzen dituela bideak, ezta?, gero gainontzeko guztiak erabiliko dituzten bideak, akaso.
- X. M.      Izan liteke hori. Ba, horregatik, ba, hori esaten du: egia da (...?) honen arrazoiak da lehen seme-alabek segurtatua dutela denbora batez, behintzat, gurasoen afektua; lehenengo urte bat edo beste. Eta

bigarrenak, berriz, ba, borrokalariago izan beharra dutela, nagusia tronutik bota nahi badute, ze... Eta bueno hori arrazoitzat bezala edo nolabait berak eskaintzen du. Halere, ez daude guztiak ados honekin. Esaten du, ba, faktore hori lehena edo bigarrena izatearena bai eragin bat izan dezakeela baina, kontuan hartu behar direla beste hainbat arrazoi ere eta ez dela bakarrik hori, bakarrik, beste... gurasoak nolakoak diren zein inguruetan bizi den eta beste mila gauza daudela ze (...?) hartzen duen zalantzarik gabe. Bueno, esaten du lehenak kontrolatuagoak izaten direla, erru sentimendu gehiago izaten dutela. Gizarte presiora moldakorragoak izaten direla eta intelektualki kezkatuagoak ere bai, e? Eta lidergo dohain edo gaitasunak izaten dituztela, bere iritziz, lehenak.

Erdikoak, esaten du, ba, bigarrena, hirugarrena edo lau baldin badira edo bost baldin badira, esaten du, erdikoak e... oro har errebeldeago eta negoziatzaileagoak izaten direla. Nolabait, ba, borroka, hor familia arteko borroka horretan, ikasi egin behar izaten dute. Orduan negoziatzaile izate hori, badirudi bere posizioa dakarren zerbait dela. Umorea, batzutan pixka bat garratzagoa izaten dutela baina, justizia zentzu handiagoa ere bai. Pixka bat kokagune horietan egoteak bigarren, hirugarren, agian lau edo bosten artean ba pixka bat horrelako gaitasunak edo bertuteak lantzerantz eramaten duela. Esaten du, esate baterako, hirugarren batek, nolabait esateko, anaien arteko harremanetan, ba, ona, lehiakorragoa, afektu erakusketen zalea eta zelatiagoa ere izaten dela normalean.

Eta txikienari buruz, eta hori zuzentzat Jon, ba, esaten du bakarrik gozatzen ikasten dutela. Besteak baino *desinhibituagoak* eta alaiak izaten direla. Badaki pentsatzen, arazoan muinera iristen, baina gizartean gutxiago inplikatzeko esaten du. Obsesio eta fobiarako joerak dituela eta hori guraso batekin baino gehiagorekin hazia delako. Pixka bat bere anai-arrebak ere, ba, bere guraso bezala edo hartzen ditu eta hori esaten du. Zer, ados zaude ala ez zaude?

1. ESATARIA Gauza batzuekin beharbada bai, gauza batzuekin, baina gauza asko esan dituzu.

2. ESATARIA Nik ez dut nire burua hain desbideratuta ikusi egia esan behar bada, e, erdikoa izanda.

1. ESATARIA Hor gauza batzuekin, ez dakit ba, ez dakit ez naiz oso, oso...

X. M. Zer? Obsesio eta fobiarako joera?

1. ESATARIA Obsesio eta fobiarako joera hori...

2. ESATARIA Beharbada, beste batzuek esan beharko dute Jon.

X. M. Ba, gustukoenak hartu eta besteak utzi.

.....  
2. ESATARIA Besterik esaten al du, Xabier?

X. M. Bueno, ez, pixka bat hau da, baina kontua dago Freud berak ere bere garaian esan zuen, ba, lehia hori, anai-arreba arteko lehia hori, ba, desberdinkeriarengatik izaten zela edo, ba, guraso bakoitzak, ba, seme-alaba bakoitzari ez diolako beti harreman-mota bera ezartzen eta badaude halako desberdinkeria batzuk.

Gaur egun badirudi psikologoak eta ikertzaileek gehiago uste dutela hori hazte mekaniko baten parte dela. Eta zenbait animaliak txikitatik, ba, borroka egiten du beren artean. Neba-arrebak, nolabait esateko, borroka egiten dute; eta jolas hori, olgeta hori, nolabait, hazteko ezinbesteko zerbait da, mekanismo bat da. Ez dago, ba, pentsatzerik beti ba, desberdinkeria batzuk edo sumatzen dituztelako denik, baizik naturak berak edo izadiak horretara bultzatzen dituelako. Beraz, animalien artean ere gertatzen da anai-arreba edo neba-arreben arteko borroka edo sesio

edo tirandura, leia hori gertatzen da, eta badirudi hazteak berak eskatzen duela. Bueno, e...

1. ESATARIA

Hor, Xabier, barkatu, hor askotan esaten da nesken artean harreman estuago edo izaten dela.

X. M.

Berak hori esaten du, ikerketa horretan esaten du emakumezkoen artean, oro har, harreman hobeak izaten direla... hau da, e, armonia gehiagoko harremanak izaten direla. Hala ere, esaten du adinean aurrera joan ahala, gizonezko bai emakumezko elkarrenganatzan hasten direla. Urteak aurrera joan ahala, badirudi, ba, gurasoak hil egiten dira garai baterako eta anai-arreben artean, neba-arreben artean oro har hurbiltze bat gertatzen dela. Orain, gauza bat ere esaten du: hamabi hilabeterekin haurrak jadanik badakiela besteari kalte egiten, bestea nolabait zirikatzen, bestearen aurrean defendatzen hamabi hilabeterekin esaten du eta hor ja badaukagu zeloen sorrera zelo famatuak, inbidiak eta abar, eta frustrazioaren maila desberdinak ere hiru, lau, bost urte bitartean ikasten direla eta hori ere neba arreben artean ikasten den zerbait dela, hau da, errealtateak mugak ezartzen dizkigula eta ikasi beharra daukagula, ba, gauzak banatzen, itxaroten eta gogoia izan arren, ba, ba egoten eta gauzaren bat hartu gabe gelditzen eta abar. Bueno, hori dena, beraz, neba-arrebengandik ikasten dela ere gezurra detektatzen esaten du. Esate baterako, neba-arreben artean bizi izan denak, ba, normalean errazago ulertzen dituela fikziozko ipuinak eta zer den errealtateari dagokiona eta zer fikzioa eta abar. Horrelako lorpen batzuk harreman horri esker egiten direla. Hau da pixka bat laburrean esaten duena.

1. ESATARIA

Hor harrigarria egiten zait pixka bat lehen aipatu duzuna... e... edadean edo zahartu ahala, neba-arreben arteko loturak areagotu egiten direla esan duzu. Hor askotan gurasoak izaten dira lotura erreferentzia, ezta? Eta gurasoak falta direnean badirudi bakoitza bere aldetik sakabanatuta hasi behar duela... alderantziz...

X. M.

Bueno, izan liteke hori arrazoi bat, bueno, era guztietako gauzak gertatzen dira gurasoak hiltzean, sesioak ere sortzen dira herentzi kontuengatik. Esan nahi dut hori gerta liteke kasu batzuetan, baina berak badirudi hori joera nagusi bezala ikusten duela. Ba gurasoen hutsunea edo nolabait berreskuratu nahia edo holako zerbait.

# C ATAZA: ZORIONEAN ETA EZBEHARREAN

## C1 ATAZA: FAMILIA

### 2. IRRATI-PASARTEA

■ Iraupena: 8' 23''

Bakarrik bizi

- ESATARIA Atrebertziarekin, bakarrik bizi al zarete, Bego, Ander?  
BEGO Ni bai, katu batekin.  
ANDER Ni ez baino, urtetan bizi izandakoa naiz.  
ESATARIA Eta zer moduz Bego?  
BEGO Ba... ni *klaro*... Nik esan behar nuen hori, ez? Nire kasuan aukeratua izan dela. Nik uste dut kasu gehienetan, susmoa dut ehun mila horietatik ba, gehienetan ez dela aukeratua, ez? Hirugarren adineko jendea izaten da normalean bakarrik geratu den jendea eta aukerarik ez duena igual familiarekin bizitzeko eta hori, ez? Nire kasuan aukeratua izan da eta niri primeran doakit.
- ESATARIA Ba, Gabriel eseri al da?  
ANDER Ba orain, zera kaskoak falta zaizkio... Ez dakit nik etxe honetan zer gertatzen den baino... Kasko bila joan da.
- ESATARIA Orain kasko bila joan da bueno... Abisatuko al didazu, Ander eta agurtuko dugu orduan? Zu bakarrik bizi izan zinenean, Ander, zer moduz?  
ANDER Bueno ondo... Bai, inolako arazorik gabe.  
ESATARIA Zer behar da bakarrik bizitzeko? Gaitasun berezia behar da edo edonor bizi daiteke bakarrik?
- BEGO Ba, lehenengo dirua pentsatzen dut, e? Nik pentsatzen dut gure gizartean aukera hori egin badezakegu, batez ere, neurri handi batean dela, behintzat, soldata daukagulako eta gure independentzia ekonomikoa daukagulako. Ezin dut imajinatu... ez gure amen belaunaldiko emakumeak bakarrik bizitzen ez eta beste herrialde batzuetako jendea bakarrik bizitzen, ezta?
- ESATARIA Bizi izan al zara edo bakarrik bizi al zara?  
GABRIEL Ez bakarrik *inposible*, oso gizakume soziala naizelako.  
ESATARIA Beraz, zure ustez gaitasun bereziren bat behar da bakarrik bizitzeko?  
GABRIEL Ez. Gogoia eta borondatea baina, ez dut uste inor bakarrik bizi denik. Bakoitza bere fantasmekin, bere mamuekin, bere egunerokotasunekin bizi denez, ba...

.....

- BEGO Gauza pare bat, behintzat. Hasieran esan dut, ezta? E... gehiengo pertsona zaharrak direla eta agureak uste dut gainera gizonezkoak bakarrik direla, beraz, uste dut emakumeak direla, emakume zaharrak gehiengo bakarrik bizi direnak, ze gehiago bizi dira emakumeak gizonezkoak baino. Orduan estatistika horietatik ba, ez dakit erdia baino gehiago edo hiru laurden behintzat emakume zaharrak izango dira. E... orduan, e... Hala ere, ni ez nago Gabrielekin ados, e? Nahiz eta indibidualismoak bultzatzen den gizarte honetan, ez dut uste inolaz ere bakarrik bizitzea bultzatzen denik. Nik uste dut, *osea*, norberak bere etxean, eta hor ikusten da *osea*, etxe batzutan lau eta bost telebista daude. Orduan, *osea*, indibidualismoa landu dezakezu familia baten barruan ere. Eta nik ez dakit interneten bidez hor ibiltzen direnak, orduak eta orduak saiatzen direnak, beste batekin kontaktatzen eta

ez dakit, zer... gustatuko litzaidake jakitea bakarrik bizi den jendea den edo bakarrik sentitzen den.

.....

... nik uste dut Europan badagoela hemen baino, portzentaia handiagoa, e... segur aski, e... gizarte indibidualistaren eraginez izango dela baina, baita familia ez izatea aukeratu duen jendea. Ze nik uste dut gizartean, *osea*, behin eta berriro etengabe bultzatzen gaituztela familia edukitzera. Nik uste dut, e... *osea*, ez dakit nik ez dut ikusten beste mezurik e? Ez dut ikusten beste aukerarik... kalean, komunikabideetan eta telebistako anuntzioetan, *osea* ikusten dudana da familia eta familiak; eta gainera ba, ez dakit gauza pila bat duten familiak. Orduan nik uste dut hori... Horiek ari dira erantzuten (.?.?) berri honi baina, ez dute bultzatzen inolaz ere. *Osea*, badakite hor badagoela, e... kontsumorako bide bat, ze bakarrik bizi garenok ba, segur aski holako (.?.?) asko erabiliko ditugula beste batzuk baino gehiago, eta beste janari mota batzuk ere beste batzuk baino gehiago eta orduan bueno ba, badakite non dagoen merkatua, ezta? Baina ez dut uste gizarteak inolaz ere bultzatzen duenik. Eta gero nik bereiztuko nuke, eta zuk galdetu diozunean deitu duen horri bakarrik sentitzearena, ba, nik uste dut e, segur aski besteak bezala; *osea*, batzutan bai, beste batzutan ez... Eta hori ez?... besteekin bizi diren horiek bezala.

ESATARIA

Ui Joseba, arratsaldeon!

JOSEBA

Arratsaldeon!

ESATARIA

Zu bakarrik bizi al zara?

JOSEBA

Bai, bakarrik bizi naiz.

ESATARIA

Hala erabaki duzulako?

JOSEBA

Ba ez hain juxtu. Ze momentu baten bakarrik gelditu nintzen eta gero ba, ba ez dakit... ez dut modurik aurkitu ba, beste batekin edo beste batzuekin bizitzeko.

ESATARIA

Gustura bizi al zara bakarrik?

JOSEBA

Ba... ez. Eta gainera, deitzen dut horregatik. Zeren horra deitu dute batzuk ta hor agertzen ari diren iritzi batzuk ematen dute bakarrik bizitzea egoera ideala dela, ez? Eta nik ez dut horrela ikusten baina, inondik ere, ere...

ESATARIA

Nola ikusten duzu zuk, Joseba?

JOSEBA

Ba, nik usten dut bakarrik e... bizitzeak *inkonbeniente* asko dauzkala, ez? Eta badauka bere alde positiboa ere. Baina, ez dakit hor ematen du ba, hori... bakarrik bizitzea ba, gauza ona dela eta bueno gainera pentsatzen dut, e... egungo gizartean ba bai idealizatzen dela egoera hori, ez? Eta ailegatzen da puntu batean non esaten den bikote batekin ere harreman bat ondo eramateko banaturik bizi behar dela, ez? Eta iruditzen zait niri astakeria bat. denbora baterako agian bai Joseba baina, luzerako ez...

ESATARIA

BEGO

Halere, ez dugu esan, nik ez dut esan eta, eta... ez dut ezagutzen egoera idealik. Nik uste dut bizitzan ez dagoela egoera idealik. eta gainera, gerta dakigukeela ba, Josebak esan duen bezala, gerta dakigukeela bizitzako momentu batzutan nahi izatea edo behartuta egotea... ez dakit, gauza, edozer gauza gerta daiteke. Bakarrik egotera batzutan aukeratu egiten dugu eta beste batzutan aukeratzen dugu beste norbaitekin bizitzea eta bizitzan zehar etapa desberdinak pasa ditzakegu. Nik ez dut uste... agian... Beti gertatzen da ezkondata daudenak, familia bat dutenak inbidiatzen dituztela bakarrik bizi direnak. Hori gertatzen da beti. Esan nahi dut beraiek ikusten dute gure egoera ideala. Guk ez dugu ikusten ideala. Guk badakigu, ez gurea ez beraiena ez dela ideala.

ESATARIA

Momentu bat, momentu bat! Joseba, beste zerbait esan nahi duzu?

JOSEBA

Bai, ba horixe... Eta bueno gero, bueno, eske adibidez, bakarrik bizi direnak, batzuk... eske nik bereizten dut gainera, bakarrik bizitzea eta bakardadean bizitzea, *osea*...

ESATARIA

Gauza oso ezberdina da...

JOSEBA Horixe, oso gauza ezberdina da. Baina askotan bakarrik bizi direnak eta gainera, esaten dutenak gustura bizi direla, ba, horiek egiten dute bere bizitza guztia etxetik kanpo hor aipatu den moduan, ez? Eta ordun ba, ze noraino konpartitzen den norberaren bizitza, norberaren gauzak, ez? Eta hor beste batek aipatu du be, hori, nola esaten indibi... indibidualizazioa edo hori bultzatzen duela gizarte honek eta ni bai, bat nator horretaz, ez? Bizitza egiten da etxetik kanpo eta ordun konpartitzen duzu ba, ba... gauza batzuk baina, adibidez zure gauza materialak, zure dirua, lekua eta hori, hori da zuretzako bakarrik, ez?... Eta bueno, horixe esan nahi nuen.

ESATARIA Ba, Joseba mila esker benetan deitzeagatik!

.....

BEGO Familia krisian dagoela esaten duzunean, *osea, osea*, inolaz ere. Nik uste dut familia tradizionala dagoela agian krisian baina, familia ez. Familia eredu ezberdinak ari dira ateratzen, batez ere, gizarte garatuetan eta, *osea*, ez dakit familia tradizionala nahi baduzu, ba... hori aita agintari, *padre patrón* ospetsu hura, e... emaztea etxean hanka hautsita eta seme-alabak aitaren agindupean eta ez dakit zer badakit nor... *osea*, familia eredu hori dago agian krisian baina, familia inolaz ere ez. *Osea*, nik uste dut gainera, hori ez? E... ba... badaude ba, hori ba, gutxien segur aski belaunaldi ezberdinen arteko familiak gero homosexualak ere osatzen dituzten familiak, gero badaude ba, guraso bakarra duten familiak... *Osea*, nik uste dut familia gure gizartean krisian dagoela esatea dela, behintzat, nahiko...

.....

ANDER Gaur egunean e... gizarteak desegituratu egiten direla sistemikoki, alegia, lagun taldeak hautsi egiten dira e... e... nolabait talde etnikoak hautsi eta desegituratu egiten dira, urbe handiak Majlu Hamed (?) esango zuen aldea globala eta abar, eta abar... Horrantz goaz eta berriro ere horren paradigma bezala ipiniko dut e... Japoniako kasua, ezta? Japonian jendeak norekin du harremana? Inorekin ez. Alegia, bere harreman bakarra...

BEGO Lankideekin behintzat bai, ezta?

ANDER Hori da, hori... Baina ikusi noraino iristen garen. Bere harreman bakarrak lantegi barruan ematen dira eta bertan biltzen da sindikatu bertikala, lagunak ez dakit zer, badakit zer. Langile batek, langile batek beharrezkoa du lana amaitu ostean, nagusiekin dibertitzera joatea. Hain zuzen ere, hain zuzen ere, bat: ez duelako aukerarik eta bi: jefearen menpean dagoelako, *osea*, hori, eredu hori, uste dut... ez hemen baino, gutxienez, kezka ikusi beharra dagoela, ezta? Eta gainera, beste e... hau erakusten duen beste hainbat erakusgarri edo bariabile badaude, ezta? E... hemen uste dut inoiz hitz egin dugu sekten fenomenoaz; erlijio berrien fenomenoaz. Horrek zer erakusten du? Horrek erakusten du jendeak behar dituela berriro sare eta harreman *komunitarista* horiek, ezta? Eta gurean, eta ez bakarrik gurean, zergatik ari dira sortzen momentu honetan hain indar handiz korrante nazionalistak? Ba horri ere erantzun ahal zaio, alegia, globalizazioaren filosofiaren kontra zer indartzen da? Bertako kontua...



## D. ATAZA: ZAHARRAK BERRI

### 3. IRRATI-PASARTEA

■ Iraupena: 3' 49"

ESATARIA      Andoni Egaña, egun on!  
ANDONI        Baita zuri ere  
ESATARIA      Zeri buruzko hausnarketarekin etorri zara gaur?  
ANDONI        Bueno, urtebetetze bat badugu familian eta horri buruz.  
ESATARIA      A, bai? Gauza pertsonalak kontatzera zatoz?  
ANDONI        Bai.  
ANDONI        Bai.  
ESATARIA      Ea, bada.  
ANDONI        Aktualitateari pultsua hartzea omen da garrantzitsua. Hala esan ziguten Goizean Behinekoek, adiskide ere izan arren, kazetari direla erakutsiz. Baina gaur goizean larunbateko manifestazioaz, Eusko Jaurlaritzaren erabakiak sortutako istiluez edo Olinpiar jokoei buruz hitz egiteko gaur gogorik eta ganorarik gabe esnatu naiz. Gaur Oriko txoriak Orira bezala etxerantz tirako dut. Gaur emaztearen amonak 100 urte bete ditu, 100. XIX. mendearen azken arnasetan jaio zen, XXgarrena oso-osorik jasan osatu du, eta XXIgarrenari kax-kax, ate joka hasita dago. Eta ehun urte atzera egiteko ariketa proposatu diot nire buruari. Orain ehun urte alperrik etorriko nintzatekeen Miramongo kaxko honetara, ez zen irрати-telebistarik. Jendeak ez dakit nola pasako zuen aisiartea. Irakurritz? nekez. Argindarrik ba al zen, bada, etxe asko eta askotan? Orain ehun urte ez zen automobilik apenas, hain gutxi bus eta horrelakorik. Baina jendea mugitzen zen nonbait. Orain ehun urte den-denek zuten senide bat edo gehiago Argentinan eta beste bat edo gehiago fraide/moja joana. Orain ehun urte ez zen telefonorik, eta are gutxiago fax, e-mail eta gainerakorik. Elkarren berri kartaz izaten zuten, baina gutunak idazteko ere *pluma* eta tinteroak erabiliko zituzten, boligrafoa oso gerokoa baita. Orain ehun urte *labaderoan* garbitzen zuten arropa, harriaren gainean igurtziaren igurtziz. Aspaldikoa da baina artean ez zen azaldu: "bilatu, alderatu eta zerbait hoberik topatzen baduzu esaguzu" eskatuz gure bizitzan sartu zen morroi gogaikarri hura. Orain ehun urte den-denak arnasa joanda hiltzen ziren, ondoeza eginda, gehienera ere, ez kolesterolaz, ezta bihotzekoaz ere. Hori bai, ez zuten ahalegin handirik egin behar izaten hiltzeko, penizilina bera ere gutxi batzuen esku zegoen asmazio berria zen eta. Bizar egiteko bai, ahaleginak egin beharko zituzten, orain ehun urte ez baitzen ez makinatxorik eta ezta bizarra egiteko laban berezirik ere. Baina uste dut amonari, orduan, horrek lorik ez ziola galaraziko. Ehun urte horrela esanda, abstrakzioan, ez direla hainbeste. Baina pertsona jakin baten begietan jartzen bagara izugarria da. Amonak Cubako gerratearen ondoren han utzi zituen nerabe, ezagutu zituen munduko Lehen Gerra edo Errusiako Iraultza; 23 urte zituen Primo de Riveraren diktadura garaian; emakume heldua zen, zazpi seme-alabaren ama Espainiako Gerra Zibilean. Munduko II. gerra amaitzerako ia 50 urte zituen, eta Franco hil zelarik 75. Eta ia beste mundualdi bat aurretik. Harrigarria da giza emakumeon egokitze gaitasuna. Ehun urte honetan zenbat aldiz harritu ote da amona. Eta zenbat aldiz ikasi behar izan ote du lehen harridura sortzen ziona ohikotzat eta naturala hartzen. Aurrerapenak aurrerapen, pertsona da animalia bakarra parra egiten duena. Hori bai dela, egiaz, ezaugarri bereizgarria. Eta ispiluaren aurrean jarri eta parra egiten asmatzen duenak hark bai duela egiazko zoriona berekin, ehun urte joan arren. Zorionak amona!

#### 4. irrati-pasartea

■ Iraupena: 5' 02"

1. ESATARIA     Beti dago, beti dago detaileren bat, beti egon ohi da konturen bat jabeazazi gaituena ez garela lehen bezain gazteak.
2. ESATARIA     Zahartu egin garela konturarazi gaituen detaile horren bila abiatu nahi dugu.
1. ESATARIA     Ikasketa kontuak, betiko iloba txikiak ezkontzara gonbidatu izana, "señorka" edo "señoraka" norbaitek hots egin izana...
2. ESATARIA     Hamaika detaile, eta bakar batek jabeazazi zahartu ginela. Norberak, berea du.

.....

- Loinaz Jauregik, beharbada abantaila du aktorea den partetik noizbait bere burua ikusi izango duelako zahar-zahar moduan makilatuta. Baina, benetan inoiz sentiitu ote du zahartu egin dela?
3. ESATARIA     Loinaz Jauregi, egunon!
- L. JAUREGI     Egunon!
3. ESATARIA     Noiz konturatu zinen zu zahartu zarela?
- L. JAUREGI     Zahartu, zahartu... erabat zahartu, bueno. Heldutasun mailara edo iritsi garela igual, ez?
3. ESATARIA     Ja, eta noiz izan zen hori?
- L. JAUREGI     Bueno ba... beti topikoak izaten dira, ezta? E... "*qué quiere la señora?*" eta horrelakoak baino, bueno nik uste pixka bat hola konturatu naizela ja heldu samarra naizela, nire semea ja bibotea kentzen hasi denean. Semeak ja bibotea kentzen hasi du eta horrek dakarren guztia atzetik ba bueno pixkat sentitzen zera beste generazioa bat pixka bat atzetik datorrela, ezta?
3. ESATARIA     Zure semeak bibotea kentzen hasi al da ja(da)? Zenbat urte dauzka, ba?
- L. JAUREGI     Hamahiru... Eta badakizu hasi da ja dantza kontuekin eta, neska kontuekin eta... bueno...
3. ESATARIA     Hortxe konturatu zara, beraz, edadean aurrera zoazela, e Loinaz?
- L. JAUREGI     Horixe, horixe.
3. ESATARIA     Bueno, bueno... Ba eskerrik asko Loinaz hori kontatzeagatik. Zer moduz television, teletxean?
- L. JAUREGI     Bueno hortxe ibili gera (..?..) ahal den guztia egiten eta gustura.
3. ESATARIA     Agur bero bat
- L. JAUREGI     Bale, mila esker...

(musika).....

1. ESATARIA     Txuma Murugarren "Sasoi Ilunak" taldeko kide da eta kontzertuz kontzertu makina batetan ibilitakoa da (..?..) aldetik belaunaldi aldaketarik sumatu ote du?
3. ESATARIA     Txuma Murugarren, egunon!
- TXUMA     Egunon, bai!
3. ESATARIA     Noiz konturatu zinen zu: "Zahartu nauk!"?
- TXUMA     Bueno... bai, bai gertatu izan zait eta bueno ez kontzertu batean hain zuzen baino, ba bueno... aspaldian ikusten ez nuen lagun batekin topo egin nuen behin hor Gran Vian, Gran Vian erdian, arratsalde batean lanera nihoala; ta bera ere lanera zihoan eta bueno presarekin, badakizu. Eta hori, ez da parada, ez da izaten parada hola solasetako lasai eta... Ba bueno beste noizbait geratu behar ginela. Adostu genuen eta aspaldiko edo aspaldian zera, bisitatzen genuen taberna batean, ba geratu ginen. Biok ezaguna zen taberna bat eta bueno gure sasoi handik ezta ibiltzen ginen biok. Ba bueno halako orduan eta halako egunean geratu ginen eta hara joan nintzan... jai eguna zen eta eguraldi ederra zegoen. Eta hara hurbiltzen nindoala, hor bueno, urrundik ikusi nuen jende pila bat zegoela kanpoan,

ez? Eta nahikotxo goiz zen, arratsaldea baino, ba bueno arratsaldeko seiak hor nonbait eta jende pila zegoela hor tragoak hartzen. Bueno arraroa iruditu zitzaidan horren goiz izaki ba, horrenbeste jende egotea... Baina bueno hurbiltzen joaten nintzala, konturatu nintzen bertan zen jende guztia oso, oso, oso gaztea zela; baino gazte-gaztea. Eta orduan ez dakit nik ze gertatu zitzaidan, hola bat-batean lotsa bat sartu zitzaidan ez dakit zer gertatu zitzaidan baina, hurbiltzen nindoala, pentsatzen hasi nintzan: "Baina Txuma nola demonioz sartuko haiz hi horrela... horrenbeste jende gazte eta nola sartuko haiz hi horrela? Pentsatuko dute: "Zer demonio egiten du hemen karroza alu honek?"

2. ESATARIA Aiton honek, ezta?  
TXUMA Ba, begira... Ez nintzen sartu. Aparte batean geratu nintzen eta hortxe egon nintzan nire lagunaren esperoan eta horixe. Eta orduan pentsatu nuen: "Txuma zer daukak, ba? Zahartzen goaz ala?" Eta benetan, ez dakit... Gerora bestelako moduz ikusten dut, ez? Ordura arte ez zitzaidan holakorik gertatu sekulan... eta bueno handik aurrera ba pentsatzen dut non sar naiteken, non ez...
3. ESATARIA Txuma, ze adinekin, ze edaderekin gertatu zaizu hori?  
TXUMA Ba hori... orain dela bi urte o hiru urte, hogeita hamar urterekin nik uste... (..?) izan nuela orduan...
1. ESATARIA Traumatikoa ia, ia!  
3. ESATARIA ... Gazte garaiko lagun bat eta gazte garaiko taberna bat... Hara bildutakoan, han ikusitako gazte jendearekin erabat zahartuta sentitu. Txuma Murugarren, eskerrik asko!  
TXUMA Baleee...

## 5. irrati-pasartea

■ Iraupena: 1' 17"

### 1. zatia

1. ESATARIA ... gazte bizi zara zu, bai. Gazteee...  
2. ESATARIA Kontua da jubilatatu bat baino gehiago gartzeleratu egin dutela Italian...  
3. ESATARIA Adina delitua izango da, gainera. Horretara ere iritsi al gara? Joeee...

### 2. zatia

2. ESATARIA Jubilatuei lan bereziak eskaintzen hasi dira batzuk eta lana hala moduzkoa izan: Droga trafikatzailiek orain gamelutarako jubilatuek erabiltzen hasi dira: "Hau eta hau, halakori edo besteri ematen badiozu, hainbeste emango dizut".
1. ESATARIA Eta jubilatuek onartu?  
2. ESATARIA Bai, diru erreza, badakizu... Gaurko jubilatuek ondo nekatuta ez dute lortu pensio handirik izatea eta ea ba, lan arin eta erreza eginda ezer lortzen duten.
3. ESATARIA Eta? Poliziak harrapatu?  
2. ESATARIA Bai, bai...  
3. ESATARIA Baina edadeak eta adinak eta bizitzaren eskarmentuak ez al du ba, erakusten zein den fidagarria eta zein ez den fidatzekoa?
2. ESATARIA Bai baina, diru erreza. Badakizu...  
3. ESATARIA Eskerrak, eskerrak hemen ez den halakorik, uf!  
1. ESATARIA Bueno, ez jakin...  
2. ESATARIA Hori da. Iragarkietan begiratzen hasi beharko dugu. Beti ere modu errazean dirua lortzen eskaintzen duten iragarkiak eta adinean ere jubilatuek eskatzen dituzten *anuntzioak*.
3. ESATARIA Ezta bat ere!  
2. ESATARIA Bai!

3. ESATARIA Ezta bat ere! Halako iragarkiak iruzur eta tranpa hutsak dira eta galbidea eta arriskua! Kartzelan ez du orain... bukatu behar *gotak* jota dagoenak! Hemen nago ni jubilazioa eta pentsioa *soluzionatzeko*... Hogeita mila duro aste batean irabazi, to. Lehiaketan parte hartzea baino errazagorik ba al da?
1. ESATARIA Ezin, ezin! Legezko kontutan ari da gutxienez eta utzi diezaiogun! Gari lasai; oraindik ere minutu batzuk falta dira...

## 6. irrati-pasartea

■ Iraupena: 1' 40''

- ANDRE BAT Eske oso izen bitxia gelditzen da, "Antena SECOT". Igual martziano koadrilan bat edo...
- ESATARIA Bueno izenarekin ez fidatu ikusten duzue gero atzean lan hadi bat ari direla egiten hauek eta...
- JOXEMARI Lehen esan dudana, *bueno Cooperación Técnica* esaten den bezala horrekin pixka bat argitua gelditzen da. Gero ez dakit beta baldin badago, e... nik esango nizuke, ba, nolatan sortu zen Koldok esan du... Baina nor izan den bultzatzailea, ordun hor bultzatzailea noski enpresari nagusiak izan ziran bultzatzaileak, ordun, e... orain ere elkarte honek, ba, bi banku nagusiren laguntza dauka eta bestea erdaraz irakurriko dut *Camara de Comercio e Industria*, Iberdrola eta bueno, ordun gure atzean hor dago gure atzean gure aurrean, ba, bueno enpresak daude argi eta garbi gelditu dadila nortzuk garen, ezta?
- ESATARIA Enpresa jendea dagoela eta *enpresario* jendea dagoela hori bultzatzen
- .....
- ESATARIA ... zuen zerbitzuan Joxemari... e... ze nolako jendeak eskatzen dizuete. Normalean oso jende gaztea da edo denetarik dago?
- JOXEMARI Denetarik... bai, denetariok azaltzen zaizkigu, bai gazteak eta bai adinekoak eta, bueno... badakizu gaur egun, batez ere, ba, arazoak eta ezbeharrak edozeini sortzen zaizkio eta onenean, ba gaztea bideratu nahian dabilelako eta onenean zaharra ere bere bizi guztia bere enpresarekin hor dabil eta orain, berriz, ordu txarrak egokitu zaizkio eta hura ere gugana hurbil daitekeela lasai eta ahal duguna egingo dugula hori eskaintzen diogu, e?

## 7. irrati-pasartea

■ Iraupena: 5' 23''

1. ESATARIA ... baina jubilatua ere ari omen dira ja lanean aholkuak emanez eta debalde. Albiste hori ere entzun dugu, Xabier... Jubilatua debalde aholkuak ematen.
- X. MENDIGUREN Bai, hori horrela da bai. "SECOT" izeneko elkarte bat da eta honek ez dauka "Sekotekeriarekin" zerikusirik, alderantziz hori. "SECOT" hau sigla batzuk dira eta honek esan nahi du: *Seniors Españoles para la Cooperación Técnica*, izen honek. Eta hemen jubilatua debalde aholkuak ematen aritzen dira. Une honetan esan behar da... 600 bat exekutibo daudela enpresetan eta bai karguetan eta egondako pertsonak eta hau, e... *lukro* asmorik gabeko elkarte bat da, beraz, honen helburua ez da dirua irabaztea; bakarrik bere gastuei edo eutsiko die baina, hortaz aparte inork ez du hor irabazten. Eta horiek hainbat urtetan metatu duten esperientzia, e... hutsaren truk, doan ematen dute. Nola da kontu hau? Ba, bost arau dituzte oso argiak eta berehalaxe ulertzen da hauen egitekoa. Alde batetik hauek, desinteresatuki lan egiten dute jubilatua direlako eta jadanik beren arazoak nolabait konponduak dituztelako; ekonomia aldetik esan nahi dut. Bigarren, inoiz ez dira leian aritzen profesionalekin, hau da, ba lan aroan edo lan

garaian dauden beste profesionalei ez diete hauek lanik kendu nahi, ez da beren helburua hori...

1. ESATARIA Ze, kezka hori behintzat, izango du jendeak. Hauek, azkenean, lanpostuak kentzera al datoz, edo?
- X. M. Bai, horregatik, berek badituzte halako... puntu argi batzuk eta... Hurrengo da: ez dute sekula, e?... onartzen langabetuek edo erakundeko enplegatuek betetzeko moduko kargurik, hau da, e... hor ez dute nahi inolako itzalik egin. Eta ez dute ere hartzen erabakirik enpresarien orde. Gehienez, gainera, sei hilabeteko harremana izaten dute laguntza eskatu duen horrekiko. Beraz, gauza hauek oso garbi dauzkate. Orduan, nola funtzionatzen du honek? Lehenengo, hauek, lan egiten dute *kontsultoria* baten laguntza jasotzeko dirurik ez dutenekin, hasi berriekin, lehenengo aldiz enpresa bat antolatzen doazen gazteekin eta abar...
1. ESATARIA Jar dezagun, jar dezagun adibide praktiko bat, Xabier. E... beraz, imajinatu hiru edo lau jubilatutako pertsona bat eta ba... gazte batzuk enpresa bat muntatu nahi dutela edo jarri nahi dutela. Orduan ze lotura izango litzateke hor, zer, e... eskainiko lukete?
- X. M. Lehenengo egiten dutena da... e... jaso egiten dira, erakunde honek, SECOT honek, jaso egiten ditu, eskariak. Hau da, hainbat pertsonak interesa dute zerbitzu hori, laguntza hori jasotzeko. Baina SECOTek ez die edonori, ez dio erantzuten. Ez die eskari egiten duten guztiei erantzuten, hau da, lehenengo bere garbiketa bat egiten dute. Beren iritziz, berek erantzuteko modukoak zeintzuk diren *filtratu* egiten dituzte. Orduan, horregatik, esate baterako, urtean zehar ia mila eskari inguru jaso dituzte eta erantzun seiehuni bakarrik eman diete. Zergatik? Ba, horietako eskari asko beren iritziz ez zirelako beren, nolabait esateko, etika deontologia edo beren printzipioen barruan sartzen. Orduan eskatzen duten guztiek ez dute betetzen ba, hauek erantzun ahal izateko moduko jendea izatea eta orduan alderdi horretatik, berek lehenengo garbiketa bat egiten dute; eskariak egiten dituzten artean garbiketa bat egiten dute. Orduan, e... gainera ere lan egiten dute lukro asmorik gabeko erakunde (?) ze esateko, hainbat ONG eta daude hortik... ba helburua ez dutena dirua irabaztea baina, arazoak dituzte diruarekin eta gauza askorekin. Orduan hauei ere laguntzen diete. Beren lana batez ere da, nolabait esateko, ezintasuna dutenentzat bereziki eta gero diru irabaztea asmozat nagusiki ez duten erakundeentzat. Beraz, badute leku nahiko garbi definitua, ez da edonor joan eta, aiba! hauek hutsaren truke, hauek laguntzea baizik, arauak ondo finkatua daude. Gainera esan behar da gauza bat: hau, hemen berri samarra bada ere, Ameriketara eta duela ja hogeita hamar urte sortutako kontua da, e? Eta une honetan esan behar da munduan badirela berrogeita hamar bat mila horrelako pertsona lan hau egiten dutenak. Beraz, hau esperientzia zaharra da... e, hemen berria izanda ere, eta, beraz, ondo kontrastatutako esperientzia bada, eta beraz, esperientzia hori hona ekarri da, eta beraz, badakite nondik nora ibili. Zentzu honetan ba, esan liteke: "Eta zer egiten dute hauek?" Bueno ba, egiten dute antolakuntzari buruz aholkuak eman, nola antolatu enpresa bat, kostua nola murriztu, lan bitartekoak, esate baterako, teknologia berriak etorri direla eta abar nola berregituratu... Zerbitzuak ere nola hobeto gestionatu enpresa barruan, finantziarioa nola hobetu litekeen, marketinga planifikatzen lagundu eta abar, eta abar... Une honetan emakume bat da SECOTen zuzendaria, M<sup>a</sup> Jesus Escribano eta ba, esan behar da benetan arrakasta eta garrantzi handiko lan bat dela... Ze, beti esan dugu denok nola liteke ba, hirurogeita bost urte edo bete dituelako pertsona bat hainbat urtetan lortu duen altxor hori, aberastasun hori, bat-batean ia ezertarako ez dela gelditzea. Orduan hau benetan inbertsiotzar bat da edozein herrialderentzat.
1. ESATARIA Aprobetxatu egin behar dela, ezta? Aprobetxatu esperientzia...
- X. M. Dudarik gabe, dudarik gabe. Beste kontu bat da horrek (...?) ez diola kendu behar gazte bati lanean sartzen ari den lanposturik baina, lor daiteke bien

artean halako armonizatze bat, uztartze bat eta abar. Eta hemen ikusi dugun kasuan, gainera, ba alor zabalak daude eta badirudi SECOTek hor zeregin haundia duela eta munduan gainera ia esperientzia honek asko eman du eta emango du.

# B ATAZA: BILTZEN GINENEKOA

## 2. GERARTA AINGERU ETA BESTE

### 8. irrati-pasartea

■ Iraupena: 8' 21''

1. ESATARIA Emakume batek, Yolandak, haurtxo bat izan zuen, neska. Eta hari izena jarri behar eta, asko gustatzen zitzaion izen bat jarri nahi zion: "Naiz".
2. eta 3. ESAT "Naiz"?
1. ESATARIA Bai, "Naiz".
2. ESATARIA Naiz, naiz, naiz? Ni naiz?
1. ESATARIA Bai baina, zu Gari zara. Zu ez zara "Naiz".
3. ESATARIA *Aber, aber* "Naiz" izena jarri nahi zion.
1. ESATARIA Bai, "Naiz" izena jarri nahi baina, ez zioten utzi. Beraz, kalerako beste izen bat aukeratu zuten: Olatz baina, benetan "Naiz" da.
2. ESATARIA *Osea*, Olatz ez da izena, izengoitia baizik.
1. ESATARIA Bueno, zerbait horrela, bai.
2. ESATARIA Zerbait horrela, zerbait horrela. Hori... ezin da horrela utzi! Argitu ezazu kontua!
1. ESATARIA Argitu zerorrek! Hitz egin nahi al duzu, ezagutu nahi al duzu "Naiz" izeneko neska bat Gari?
3. ESATARIA Hemezortzi urtekoa gainera, Gari.
2. ESATARIA Bale, bale konforme. Non dago?
1. ESATARIA Telefonoz bestalde. Oraintxe jarriko zaizu nahi baduzu.
3. ESATARIA Gure Josunek telefonoa markatzen behar duena.
1. ESATARIA Halere, ez dakigu etxean izango ote den, e? Igual aterako zaizu bere ama...
2. ESATARIA Bueno, ba harekin ere hitz egingo dut eta bere hemezortzi urteko alabari nolatan jarri nahi izan zion "Naiz" izena ere galdetuko diot eta...
3. ESATARIA Gari konforme baina, hemezortzi urte dituela esan beharrik ez duzu.
1. ESATARIA Hori da, igual pentsatuko du zerbait; ez den zerbait beti ere ta hobe duzu urteena ez aipatzea.
3. ESATARIA Telefonoan al dago, Josune? "Naiz" etxean dago baina, telefonoan bere ama. Bere amaren izena?
1. ESATARIA Esan dut lehen: Yolanda.
3. ESATARIA Zuretzako biak, Gari...
2. ESATARIA Yolanda, Egunon!
- YOLANDA Bai, egunon!
2. ESATARIA Bueno, zu "Naizen" ama zara, ezta?
- YOLANDA Bai.
2. ESATARIA Eta nolatan aukeratu zenuten "Naiz" izena?
- YOLANDA Bueno ba, entzunda geneukan. Ja(da) bueno gaztetxotik eta gustatzen zitzaigun eta horixe pentsatu genuen. Egunen batean alaba bat izango bagenu, ba horixe izango zela bere izena.
2. ESATARIA Aizu, eta beste norbait ezagutzen zenuten "Naiz" izena zuen norbait ezagutzen zenuten aurretik?
- YOLANDA Ba... ezagutu ez baina, entzunda geneukan.
2. ESATARIA Entzunda zeneukaten, ja baina, izen propio bezala ez.
- YOLANDA Ez dakigu, horixe ez dakigu... Baina pentsatu genuen posiblea zela eta horixe izango zela bere izena eta hori... arazorik gabe, *vamos*...
2. ESATARIA Aizu, eta zergatik gustatu zitzaizuen "Naiz" izena Yolanda?
- YOLANDA Ba... jotzen zuelako ongi eta esanahia oso polita zela pentsatu genuen. Bai, dena. Doinua, esanahia...
2. ESATARIA Baina esanahia, aditz bat da: naiz, ezta?
- YOLANDA Naiz bai baina, esan nahi duena nire ustez oso handia da, ez?

2. ESATARIA Tira, hori guztiagatik erabaki zenuten: ba gure alabari "Naiz" izena jarriko diogu. Senarra ere zurekin ados egongo zen, noski. Aizu, eta erregistrora joan zinetenean zer esan zizueten?
- YOLANDA Ba horixe izan zen sorpresa... Joan ginen hara eta (...?...?) bere izena horixe zela eta joan ginen hara eta *tatxatu* egin zuen izena eta esan zuen: "Hala pentsa beste bat".
2. ESATARIA Pentsatu beste bat, ze hau ez dizuet onartuko, ezta? Eta harriduraz hartu zenuten hura?
- YOLANDA Ba, oso handia eta joan ginen, e... ba hori ea nola jartzen genuen izen hori... Eta hasi ginen bilatzen forma edo baina, ez zuen izan.
2. ESATARIA Ez zegoen modurik, ez zegoen erregistroan sartzeko modurik izen horrekin behintzat, ezta? Eta orduan beste izen bat aukeratu behar izan zenuten; erregistorako behintzat.
- YOLANDA Bai. Eta gainera ba hori, ume bat erregistratzeko, ba, epe bat daukazu. Eta joan ginen begiratzera eta hori eta pasatuta zen eta auzia eta guzti izan genuen.
2. ESATARIA Bueno... A ze nolako iskanbilak izen baten kontura, ezta? Aizu, etxean nola deitzen diozue?
- YOLANDA Ba beti "Naiz". Baina bai etxean, bai ikastolan, kontserbategian... Leku guztietan beti izan da "Naiz"... Paper askotan eta hori ba...
2. ESATARIA Bai, bere izena "Naiz" da nahiz eta erregistroan ez azaldu, ezta? Aizu, Euskaltzaindira ere jo duzue?
- YOLANDA bai, eske entzunda, entzun genuen ba hori, *Unión Europea* edo e... *normatiba* bat zeukala eta zu izena ez bada *peyorativo* edo posiblea zela jartzea. Orduan joan ginen erregistrora berriro eta han esan genuen eraman behar duzula bi dokumentu edo paperak izen horrekin bizi zarela edo... eta hortik Euskaltzaindira bidali ziguten. Baina Euskaltzaindian esan ziguten ezetz, ezin zela posible.
2. ESATARIA Ez zela posible hura onartzea. Ja(da) baina, badago tartean bide bat, ezta? Badago aukera bat.

## 2. zatia

- YOLANDA Ez dakit.
2. ESATARIA Alegia, esan nahi dizut. E... istorioren batean, libururen batean "Naiz" izena erabiliko balu norbaitek, orduan, kasu horretan onartu egingo litzaizueke.
- YOLANDA Bai, bai oso arraroa da hori, bai hori da kondizioa edo.
2. ESATARIA Hori da geratzen zaizuen aukera bakarra momentuz, ezta? Eta ez al diozue inori istorioren bat enkargatu edo inori ez al diozue eskaera luzatu?
- YOLANDA Idaztea, ez? Edo gu behintzat, ez?
2. ESATARIA Edo zuok idatzi. Edo "Naizek" berak idatzi dezala...
- YOLANDA bai, hori ematen du dela erantzuna, bai.
2. ESATARIA Tira, istorio bitxia benetan. Aizu, Yolanda "Naiz" etxean al dago?
- YOLANDA Bai, bai. Hemendik dago.
2. ESATARIA Esaiozu jartzeko, mesedez.
- NAIZ Bai?
2. ESATARIA "Naiz"? Ni Garikoitz naiz. Zu "Naiz", ezta? Aizu, gustatzen al zaizu zure izena "Naiz"?
- NAIZ Bai, betidanik izan da nire izena eta... bai... arrunta aurkitzen dut.
2. ESATARIA Zuk arrunta aurkitzen duzu. Zuretzat oso normala da, ezta? oso ohikoa da.
- NAIZ Bai, noski.
2. ESATARIA Amak esan digu etxean "Naiz" deitzen dizutela, ikastetxean ere bai.
- NAIZ Bai, toki guztietan.
2. ESATARIA Toki guztietan "Naiz", ja eta zuk nola aurkezten duzu zure burua? "Ni "Naiz" naiz" esaten duzu?
- NAIZ Ez, "Naiz" dut izena edo nire izena "Naiz" da, edo...



2. ESATARIA Ah, "Naiz" aditza ahalik eta gutxien erabiltzen saiatzen zara zure izena hor tartean baldin badago, ezta? Aizu, hala eta guztiz ere zein gustatzen zaizu gehien: "Naiz" edo Olatz?
- NAIZ Ez, ez, "Naiz".
2. ESATARIA Eta lagunei ez al zaie arraroa egiten?
- NAIZ Bueno... eske bestea ez dut erabiltzen inoiz, e?
2. ESATARIA Olatz ez duzu inoiz erabiltzen. Olatz paper ofizialetan bakarrik dago baina, zuretzat egongo ez balitz bezala orduan... Tira... Aizu eta e... ez dakit zure izena legezatzeko eta behingoagatik onartzeko ez al duzu ezer egin behar? Ze hor...
- NAIZ Bai baina, ez dakit askotan saiatu naiz epaitegira eta hola joaten eta beti esan didate ezin dela ezer egin.
2. ESATARIA Bueno hor zure amarekin aipatu dugun moduan, libururen batean edo argitaratuko balitz...
- NAIZ Bai, bai... komentatu dut eta... e... eskatu dut eskutitz bat edo bidaltzea idazle elkarte batengana eta ez dakit... Badirudi egingo dutela baina, ez dakit... aurkeztu behar da idazleren bat hori egiteko prest dagoena.
2. ESATARIA Zer iruditzen zaizu, norbait aurkeztuko dela?
- NAIZ Ba ez dakit. Bueno baina, gero izan daiteke horrekin ere ez izatea nahiko, ez?
2. ESATARIA Ja, segurua ez dela orduan, ezta? Baina esperantza ba al duzu?
- NAIZ Bai, nik uste dut egunen batean lortuko dudala
2. ESATARIA Edo ez zaizu batere inporta?
- NAIZ Bai, niretzako garrantzia da.
2. ESATARIA Garrantzitsua da, ezta? Aizu, izen horrekin ez al zaizkizu gauza kuriosoak gertatu? Bitxikeriak eta, ez zaizkizu gertatu zure izenarekin?
- NAIZ Ba, ez.
2. ESATARIA Bat ere ez? Ez dizut sinesten... Benetan?
- NAIZ Ez...
2. ESATARIA Ez? Aizu, zenbat urte dituzu zuk orain "Naiz"?
- NAIZ Ba, hamazortzi egingo ditut.
2. ESATARIA Hamazortzi urte egingo dituzu... Eta saiatuko zara ahalik eta azkarren kontu hau guztia argitzen eta legezatzeko orduan, ezta?
- NAIZ Bai.
2. ESATARIA Ba, "Naiz" mila esker! Estimatu dago gaur gurekin izana eta ea suerte ona duzun!
- NAIZ Bale
2. ESATARIA Aio

## 4. Material osagarriak

### A ATAZA: NOLAKO EGURRA, HALAKO EZPALA?

#### 1. AITAREN IZENEAN

126'

##### Helburu nagusia:

- Irudi, collage, marrazki edo bestelako bitartekoak erabiliz, zerrendatik aukeratutako hitza paperean irudikatu eta aurkeztea.

##### Helburuak:

- Sinbologiaz beteriko artelan bat taldeka aztertu eta euren interpretazioa azaltzea.
- Plastikarekin lotutako gai edo bitartekoak erabiliz, bakoitzak hitz bat irudikatzea.

##### Zertan den:

- Vincent van Gogh artista handia izango da berriz ere ataza honetako ardatza. Bere aita zendu zenean, berarekin zuen harremanari nolabaiteko hausnarketa egin nahi izan zion 1885eko apirila aldera pintatu zuen koadroaren bidez. Arte kritikoez hainbat sinbologia ikusi dute koadro horretan: aitaren heriotza eta harekin zuen harremana lotzen dituzte. Ikasleek, kritikoen nahiz ikertzaileen antzera, horren interpretazio librea egingo dute. Amaitzeko, bakarka maraztuko dute aukeratutako hitza.

#### PROZEDURA:

1

##### Atazaurrea

- Euren liburuan Van Goghen inguruko galdeketatxo bati erantzungo diote denek artean. (10')
- Van Goghek aitaren "omenez" pintatu zuen *Natura hila Bibliarekin* koadroaren gainean hitz egingo dute apur batean. Galdetu ea irudia ezagutzen duten, gustukoa duten... (5')

##### Ataza: koadroa aztertu

- Talde txikitik jarriko dituzu eta arte kritiko onenen antzera koadroaren interpretazioari ekingo diote. (10')

##### Azalpena

- Talde bakoitzak egindakoa aurkeztuko du. (10')

##### Feedbacka

- Bertsio guztiak entzun ostean, zertan etorri diren batera eta zertan ez aztertuko dute. (5')
- Talde bakoitzak egindako interpretazioarekin pozik egon arren, egin direnen artean gustukoena edo zientifikoena zein izan den aipatuko du, arrazoiak emanez. (5')

#### Zuzenketa-orrria

Bi liburuek aita eta semea irudikatzen dute. Biblia aita da: gogorra, sendoa, mahaiaren erdian bere boterea eta leku finkoa erakutsiz. Zolaren liburua, berriz, Vincent irudikatzen du. Mahaiaren ertz batean kokaturik lurrera erortzear; zaharkitua erabileraren ondorioz. Era berean, eleberririk Bibliari egiten dio aurre, askatasuna aldarrikatzen du; irakaspen zaharrak onarturik, baina pentsamolde eta itxaropen berriak ere erakutsi nahi dituena. Amatatutako kandelak heriotza erakusten du, aitaren heriotza, alegia; dagoeneko ez du argirik ematen, baina bi liburuek duten argia zerutik etorritakoa dirudi.

### **Atazaostea**

- Amaitzeko, euren liburuan dauzkaten Van Goghen beste datu biografiko ezezagunago batzuk irakurri eta komentatuko ditugu. **(5')**

## **2**

### **Atazaurrea**

- Van Goghek margoturiko antzeko koadrorik ezagutzen duten galdetuko diezu: alegia, sinbologiaz beteriko baten bat. Ezagutzen badute, aurkez dezatela: zein museotan ikusi duten, noiz... **(15')**

### **Ataza: aukeratu hitza eta marraztu**

- Ikasle bakoitzak liburuxkan dituen hitzetako bat aukeratuko du eta sekretuan gordeko. Hitz hori paperean marrazten edo irudikatzen saiatuko dira nahi duten eran. **(20')**
  - Marrazkiak paretetan itsatsirik erakusketa batean bageunde bezala, banan-banan ikusiko dituzte eta arbelean dauden hitzekin lotuko dituzte euren iritziaren arabera. **(15')**
- !Oharra:** Marrazki bakoitzaren ondoan oharrak idazteko paper bat jarri.

### **Feedbacka**

- Egile bakoitzak ikusiko du gainontzeko ikaskideek zer idatzi duten eta marrazkiaren azalpen laburra egingo du. **(15')**

## 2. GERARTA AINGERU ETA BESTE

150'

### Helburu nagusia:

- Izen berezi baten aitzakian ipuina edota narrazio txiki bat taldeka egitea.

### Helburuak:

- Ikasle bakoitzak bere izenaren inguruko kontu batzuekin fitxa bat bete eta paretan itsatsi ostean, horren gainean mintzatzea.
- Elkarri goitizenak asmatu eta aurkeztea, arrazoituz.
- Izen baten aitzakian narrazio edo ipuin txiki bat asmatzea.

### Zertan den:

- Izenak izango dituzte hizpide bi atazatan banaturik. Lehenbizikoan, euren izenen istorio laburra idatziko dute, geroztik guztiok ikusgai izateko paretetan itsatsiko dituzten fitxetan; eredia euren liburuan izango dute. Segidan, goitizenen gainean jardungo dute eta, talde txikitan jarrita, elkarri goitizenak asmatzeari ekingo diote, itxura fisikoa nahiz bakoitzaren izaera kontuan harturik. Bigarren atazan, berriz, entzuteko gai batetik jasoko duten informazioa oinarritzat hartuta, ipuin edo narrazio txiki bat asmatu eta idatziko dute talde txikitan.

## PROZEDURA:

### 1

#### Atazaurrea: bakoitzaren izena mintzagai

- Euren liburuan duten eredia kontuan hartuta, eskatzen zaiena folio batean eta letra handiz idatziko dute. **(10')**
- Ikasleek orriak gelako paretetan itsatsiko dituzte, denok ikusi ahal izateko. Irakurri ahala, datu deigarrienak idatziko dituzte beste orri batean gogoratzeko. **(10')**
- Ikasle bakoitzak datu deigarri horiek komentatuko ditu. **(10')**

#### Ataza: goitizenak elkarri asmatu

- Izenei lotuta datozen goitizenak izango ditugu orain hizpide. Hori horrela, beren liburuko galderei denon artean erantzungo diete —zeu animatu lehena izaten—. **(15')**
- Hiruko taldetan jarrita, elkarri goitizenak asmatzen saiatuko dira itxura fisikoa zein izaera zein jokaera kontuan hartuta. Lehenengo taldekideek bigarren taldekoei, horiek hirugarren taldekoei, etab. **(15')**
- Talde bakoitzak asmatutako goitizenak esango ditu, baita non izan duten inspirazio iturria ere. **(10')**

#### Feedbacka

- Labur bada ere, bakoitzak jarri dioten goitizenak ongi deskribatzen duen edo ez azalduko du arrazoiak emanaz. **(10')**
- Era berean, guztiek baloratuko dute zein izan den ikaskide jakin bati (batzuei) ondoen egokitzen zaion (zaizkien) goitizenak. **(10')**

### 2

#### Atazaurrea

- Ipuin bat idaztea izango dute ondorengo lana eta ipuin horretan izen bereziak izango dira ardatza. Izen bitxien kontua arestian aipatu baditugu ere, berriz ekarriko ditugu gogora galdera batzuen bidez. **(5')**

- Ondoren, izen berezi baten istorioa<sup>34</sup> entzungo dute **(8. irrat-pasarte)**: alabari “Naiz” izena jarri nahi zioten guraso batzuen kontua. Ezinezkoa izan zen izen hori jartzea, inon agertzen ez zelako. Hala ere, legalizatzeko bide bat ei dago eta horixe izango da, talde txikitan bilduta, asmatu beharko dutena. Entzun dezatela, beraz, gaiaren lehen zatia eta egin ditzatela legalizatzeko hipotesiak. **(10’)**
- Euren hipotesiak entzun ondoren, gaiaren bigarren zatia jarriko diezu. Zati honetan argitzen da bide literarioa dela irtenbide bakarra: idazleren batek bere eleberrien artean halako izena sartuko balu, erregistroaren onespina izango lukete gurasoek eta alabak “Naiz” izena jartzeko. **(10’)**

#### **Ataza: ipuina idatzi**

- Ikasleei izen bitxi hori eskuratzeko arazoak dituen neska horri laguntzeko esango diezu, irtenbide bakarra bide literarioan mugitzea dela kontuan hartuta. Hortaz, talde txikitan, “Naiz” izenak tokia izango lukeen narrazio edota ipuin motz bat asmatu eta idatziko dute. **(20’)**

**Oharra:** Baliagarria suertatzen bazaie, ondoko izenak ere ipuinean sartzeko esango diezu; “Naiz” izenarekin nolabaiteko harremana dute-eta: “Dut” musika taldea, Olvido “Gara” (Alaska) eta “Joan” Manuel Serrat.

#### **Feedbacka**

- Narrazio guztiak entzun ostean, ikasleak Erregistro Zibileko epai-mahaikideak izango balira bezala, ipuin bakoitzaren balorazioa egingo dute: zein ipuin aukeratuko luketen, “Naiz” izena jartzea baimentzeko. **(15’)**

---

<sup>34</sup> Izen berezi bat. *Goizean Behin*. Euskadi Irratia.

## EGILEAK

Proiektuaren arduraduna: **Juxto Egaña** (HABEko Hizkuntzaren Didaktika arduraduna)  
Koordinatzaile didaktikoak: **Begoña Martinez** (HABEko teknikaria)  
**Sabin Zabala** (HABEko teknikaria)  
Partehartzaileak: **Ander Bezares** (Irakaslea)  
Errealizazio didaktikoa: **Felix Sainz** (HABEko teknikaria)

HABE Erakundeak eskerrak ematen dizkio Ander Bezaresi materialgintza-  
-proiektu honetan parte hartzerakoan agertu duen borondateagatik.

Gure esker ona ondoren aipatzen direnei hainbat material eta ideia hartzeko baimena eman digutelako.

Aita xalo eta malgu hori. Ikusmira, *Zabalik* 2000ko martxoa 18-19. orr.  
Albiste bitxiak. *Goizean Behin*. Euskadi Irratia  
Anai-arreben arteko harremanak. *Consumer* 1999ko urtarrila  
Bakarrik bizi. *Lauretan Babel*. Euskadi Irratia  
Belaunaldien ordezkapena... Ikusmira (Erredakzioa), *Zabalik* 1999ko abendua  
Bixente suhiltzailea. *Sorginen laratza*. ETB  
Egaña, Andoni. Amonak ehun urte bete ditu. *Goizean Behin*. Euskadi Irratia  
El Tricicle. *Dinamita* (zenbait gag). ETB  
Etxeberrria, Hasier. Mantarena. *Kontaidazu*. ETB  
Ezkontzaren inguruan kalean. *Galdestreet*. ETB  
Familia lehen eta orain (Editoriala). *Unescoren Albistaria* 56: 9. or.  
Familia tradizionalak pisu asko du. Ikusmira, *Zabalik* 1999ko abendua  
Goñi, Jesus M<sup>a</sup>. *Bertatik Bertara*. ETB  
Izen berezi bat. *Goizean Behin*. Euskadi Irratia  
Mendiguren, Xabier. *Munduan zehar*. Euskadi Irratia  
Nagusi Azoka. *Bertatik Bertara*. ETB  
Nagusiak eta publizitatea. (Internetetik hartua) *Mundohogar*  
Noiz ohartu zinen zahartzen ari zinela? *Goizean Behin*. Euskadi Irratia  
Non jaio. *Bertatik Bertara*. ETB  
Orsayko museoa bostgarren zatia. *Inpresionismoaren ondoren*. TECHNISONOR, ETB  
Puelles, Cristina. Gero eta ume gutxiago jaiotzen da Euskadin. *HAAE*. 00ko apirila 28: 20-21-22 orr.  
SECOT elkarte. *Goizean Behin*. Euskadi Irratia  
Schami, Rafik. Eskua bete izar. *Elkar* 13-14. orr.  
Uribe, Kirmen. Aita. *Euskaldunon Egunkaria*. 1999/11/11  
Urkiza, Ana. Sei milioi salatari. *Euskaldunon Egunkaria*. 2000/11/02  
Van Gogh, Vincent Willem. *Lur Hiztegi Entziklopedikoa* 289-290. orr.

Era berean, argazkiak erabiltzen utzi digutelako, eskerrak eman nahi dizkiegu ondoko elkarte, argitaletxe eta aldizkarietako arduradunei:

Bernard, Bruce. *Van Gogh*, Testimonio visual del arte. BLUME.  
Fernández, Armand. *Van Goghen erretratu robota*, 1987. Vincent Van Gogh-Arles Fundazioa.  
Minelli, Vincent. "El loco del pelo rojo"